

# **Euskaraldia**

Ahobiziak Barakaldotik Baliarraina joan etorrian

Xabat Ajuriagogeaskoa Uruburu

Hiznet 2018-2019

Tutorea: Mikel Zalbide

## Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b> .....	5
1.1. Barakaldo: XX. mende bukaeratik XXI. mende hasierara .....	6
<b>2. Joshua A. Fishman, Txepetx eta Euskaraldia hiztunen peskizan</b> .....	9
2.1. Joshua A. Fishman: Belaun Arteko Etenaren Neurria.....	9
2.2. Txepetx: Gune Sinbolikoa.....	12
2.3. Euskaraldia: ahobiziak.....	14
2.3.1. Ahobiziak eta gune sinbolikoaren sustraitzean.....	15
2.3.1.1. Ahobiziengan oinarritutako hizkuntza komunitate egituraketa.....	16
2.4. Ezagutzatik erabilerara: ahobiziak Barakaldotik harago.....	19
<b>3. Euskaraldiaren datu eta testigantzen azterketa</b> .....	20
3.1. Euskaraldiaren datu azterketa: Ahobiziak Euskal Herrian.....	20
3.1.1. Ahobiziak Ipar Euskal Herrian.....	22
3.1.1.1. Ahobiziak lekuan-lekuan.....	24
3.1.2. Ahobiziak Nafarroa Garaian.....	25
3.1.2.1. Ahobiziak lekuan lekuan-lekuan.....	26
3.1.3. Ahobiziak Euskal autonomi Erkidegoan.....	27
3.1.3.1. Ahobiziak lekuan lekuan.....	27
3.1.4. Ahobizien datuen ondorio nagusiak.....	29
3.2. Euskaraldiko testigantzak.....	30
3.2.1. Ahobizien testigantzak.....	31
3.2.1.1. I Kontzeptua: Ahobizien bizipenak.....	33
3.2.1.1.1. Ahobizien bizipenak etxe edo famili giroan.....	34
3.2.1.1.2. Ahobizien bizipenak lagun artean.....	39
3.2.1.1.3. Ahobizien bizipenak kale giroan.....	42
3.2.1.1.4. Ahobizien bizipenak saltoki eta tabernetan.....	43
3.2.1.2. II Kontzeptua: Ahobizien balorazioak.....	46
3.2.1.2.1. Euskaraldiari buruzko ahobizien balorazioak.....	46
3.2.1.3. Ahobizien balorazioen ondorio nagusiak.....	49

<b>4. Euskaraldiaren eragina euskararen erabileran</b> .....	51
4.1. Ahobiziak Barakaldotik Baliarraina joan etorrian.....	52
4.1.1. Ahobizi maila baxuko eremuetan komunitatea egituratzen.....	57
4.1.2. Ahobizi maila altuko eremuetan komunitatea berregituratzen.....	65
4.2. Ahobizien eginkizuna Euskaralditik harago.....	70
4.2.1. Ahobizien eragozpenak.....	71
4.2.2. Ahobiziak sistema eragilean.....	74
<b>Bibliografia</b> .....	80
<b>Eranskinak</b> .....	81
<b>Iturriak</b> .....	81
<b>Hiznet graduondoko gaitegia</b> .....	82

## Laburpena

Barakaldo izan da euskalgintzaren iragan hurreko paradigma nagusia. Barakaldok hezurmamitu du behinola euskararen erronka gorena izandakoa: inguru erdaldunetan euskararen ezagutza hedatzea, hain zuzen. Atzen kale neurketek, ordea, euskararen erabilera orokorrean jaisten ari dela diote. Horregatik, egun Barakaldoz osterantzeko erronka bila dabil euskalgintza. Euskaraldia da paradigma aldaketaren hastapenetako zantzua, euskararen ezagutzatik erabilerara igarotzearen zantzua. Bada, Euskaraldiaren ekarpena ulertzeko asmoz, Euskaraldia zehar lerro gisa hartu eta hasteko Txepetxen eta Fishmanen laguntzarekin Euskaraldian zutarri izan diren ahobizien profila deskribatuko da; gero ahobizien datuak eta testigantzak aztertu eta, amaitzeko; ondorioak eskutan euskararen erabileran ahobiziek duten zereginaz hausnartuko da.

## 1. Sarrera

2018-ko Azaroaren 23-tik Abenduaren 3-a bitarte, 11 egunez, Euskal Herri osoan euskararen erabilera areagotzeko asmoz Euskaraldia izeneko ekimena burutu zen. Ordura arte euskararen alde egindako ekimenekin alderatuta bestelako zeregina esleitu zitzaion Euskaraldiari. Izan ere, ordura arteko egitasmoen xedea euskararen ezagutza esparru eta arlo orotan bermatzea zen. Oraingo honetan, ordea, helburua euskararen ezagutzatik euskararen erabilerara igarotzea izan da. Hala, egun euskarak bizi duen errealitateari erantzunez, euskalgintzatik sortutako egitasmoetan jauzia suposatu duen aldaketa eragin du Euskaraldiak. Zeren, jakina denez euskararen ezagutza areagotzen ari bada ere euskararen erabilera salbuespenak salbuespen murrizten ari da. Soziolinguistika Klusterrak burutu ohi duen Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak 2016-ko behaketan adierazi bezala, Euskal Herrian euskararen erabilera apaldu egin da azken hamar urteetan: 2006. urtean erabilera %13,7-koa zen, 2011. urtean %13,2 eta 2016. urtean, aldiz, %12,6. Beherako tendentzia argia, beraz.

Datuok sortutako ezinegon eta ernegutik norabide berri baten premia ondorioztatu da euskalgintzan. Helmugara iritsi izanaren eta beste bide berri bati ekitea ezinbestekoa den ondoriora. Hartara, euskararen erabilera jaitsiera irauli guran sortu da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskara kalean gehiago erabiltzeko intentzioz.

Euskaraldian guztira 16 urtetik gorako Euskal Herri osoko 225.154 lagunek hartu dute parte: Gipuzkoan 96.522, Bizkaian 80.036, Nafarroa Garaian 22.334, Araban 20.279, Lapurdin 4.387, Nafarroa Beherean 1.351 eta Zuberoan 245. Bestela esanda eta datuak kopuruetatik portzentaietara pasata: Euskal Herriko biztanleria osoaren %8,5-ak eman du izena Euskaraldian.

Parte hartzaile horiek, aldi berean, bi rol nagusitan banatu dira. Batetik, *ahobizi* izeneko rolean aritu direnek lehen berba euskaraz eta euskara dakienarekin zein berba egin ez arren ulertzen duenarekin euskaraz aritzeko zeregina izan dute.

Bestetik, *belarriprest* izeneko rolean aritutakoen zeregina pasiboagoa izan da. *Belarriprest* rola euskarazko elkarrizketari oztoporik ez jartzean edo eustean oinarritu da. Euskaraldia, haatik, ez da ezerezetik sortu. Aurretiaz zenbait herritan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak antolatu izan dira: Lasarte-Orian, Donostiako Egia auzoan, Agurainen... Ezin ahaztu, era berean, Lutxo Egiak burutu performance aitzindaria. Ekimen horretan Lutxo Egia idazleak hilabeteko epean Bilbon hegemonikoa den hizkuntzan berba egiteari uko egin zion. Horrez gain, Ipar Euskal Herriko hirigune nagusian, Baiona, Angelu, Miarritze, Bokale inguruan ere *Mintzalasai* eta *BAM* izeneko ekimenak atondu dira euskararen erabilera suspertzeko gogoz. Euskaraldia ez da bat-batean ernatutako egitasmoa, hortaz.

Aurreko garaietako ekimenekin alderatuta eginkizun ezberdina eduki du Euskaraldiak. Euskararen ezagutza, presentzia, aldekotasuna lehenestetik, euskararen erabilera lehenestera bideratu ditu indarrak. Agidanez, egun erronka berrien bila dabil euskalgintza, halabeharrak eraginda, seguruena: XXI. mendeko euskararen erronkak ez baitira XX. mende amaierako erronka berberak.

### **1.1. Barakaldo: XX. mende bukaeratik XXI. mende hasierara**

Izan ere, bitxia dirudien arren Euskaraldiaren ondorengo hausnarketa solasaldietan ez eze (Kike Amonarrizek, Maddi Etxebarriak eta Eneritz Rekartek Martin Ugalde kultur parkean izan zutena, kasu), euskararen gaineko ezein eztabaida askotan aditu da eta aditzen da euskara normalizatzeko Barakaldo lako inguru erdaldunak euskalduntzearen garrantzia. Euskararen salbazioa Barakaldo eta antzeko lekuak euskalduntzean lortuko delakoan.

Sarritan kontsideratu da Barakaldo euskalduntasunaren antitesi, Barakaldo eta euskara esaldi berean elkartzea oximorona balitz lez. Euskaldunik petoena Gipuzkoako herri txiki batean kokatu den moduan, euskaldunik arrotzena Barakaldon kokatu da. 90. hamarkadan Jon Sarasuak idatzitako "Euskaldun Berriaren Balada" izeneko bertsoak horren testigu: "*Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero, horregatik euskaltegira noa ni egunero, euskaraz bazekien nire bisabueloak edo, baina nik rollo hortaz orain arte zero...*"

Oskorri musika taldeak doinua jarri eta, ezarian-ezarian, Euskal Herri luze zabalean barreiatu ziren letrok. Barakaldon euskaldun berriak sortzea zen jomuga, era horretan bilakatuko zelakoan Euskal Herria euskaldun; era horretan bilakatuko zelakoan Bardeako desertua Urbiako larre. Edozelan ere, Sarasuaren bertsoetako estrofeak berba egin zezaketen Barakaldoz, baina baita Gasteizez, Iruñeaz, Miarritzez edota Irunez. Euskara galdua zegoen eremu guztiez. Barakaldo euskara berreskuratzeko eremu ororen ordezkari bihurtu zen.

Herri nahiz hiri erdaldunetan euskararen ezagutza hedatzea erronka bilakatu zen euskalgintzarentzat, Barakaldo lako eremu erdaldun oro izan da euskararen ortzi muga: Gasteiz eta Araba osoa, Nafarroako Erribera eta Iruñerria, Gipuzkoako herri industrializatuak, Ipar Euskal Herriko kostaldea edota Bilbo handia.

Denbora pasa ahala, arian-arian, euskalgintzak zenbait lorpen eskuratu ditu: ikasle askok D ereduan ikasten dute, administrazio publiko ugarian lan egiteko euskara jakitea eskatzen da, euskaldun berri asko sortu dira Iruñean zein Gasteizen, helduen alfabetatzeak bere horretan dirau euskaldun berriak sortzen... Halere, konkistak konkista euskararen normalizazio prozesuak kolokan dirau oraindik orain. Barakaldo moduko lurralde eta eremu erdaldun askotan lur hartu den arren, euskararen egunerokoa ez da uste bezainbat sendotzen ari.

Gaur gaurkoz salbuespena da euskararen erabilera, Barakaldon, Iruñean, Miarritzen, Irunen edo Gasteizen. Bete bako erronka horiei gehitu behar zaie, endemas, euskararen arnaguneak diren zenbait eremutan euskararen erabilera jaitsi izana. Arnaguneak euskara arau sozial diren eremuak dira, euskara jakitea ezinbesteko baldintza diren eremuak. Azken behaketa eta inkestek adierazten dute euskararentzat seguruak ziren eremuotan ere atzera pausoa gertatzen ari dela. Euskara araua izan den hainbat udalerrietan euskararen erabilera murrizten ari dela, alajaina!

Zonalde euskaldunetako euskararen erabilera jaitsieraz arduratuta Mikel Zalbide euskaltzainak, esaterako, argi du zein den hizkuntza baten indarberitze faktore erabakigarria: “Gauza bat dago argi, nolana ere, mundu zabaleko aditu gehienen azalpenetan: hizkuntzaren erabilerak definitzen du lehenik eta behin, ez ezagutzak edo iritzi-jarrerak, hiztun-elkarte elebidunen osasun-egoera”.

Olatz Altuna Soziolinguistika Klusterreko teknikariak ere Garikoitz Goikoetxea Berria-ko kazetariaren “Euskara Irabazteko Bidean” liburuan dio, ezagutzak erabilera hauspotu beharrean erabilerak hauspotzen duela ezagutza. Hartara, lurralde eta eremu erdaldunak guztiz konkistatu ez eta euskararen erabilera trinkoa duten inguruneak balantzaka hasi diren garaiotan sortu da Euskaraldia: hiri eta herri erdaldunetan euskararen erabilera hauspotzeko asmoz eta euskara tinko dagoen eremuetan euskararen erabilera jaitsiera iraultzeko asmoz. Hizkuntza ohiturak aldatzeko grinaz, funtsean.

Ez du, aitzitik, Euskaraldiak erronka makala izan, eta ez du are erronka makalagoa izango bi urte barruko ekitaldian, non euskararen erabilera administrazioan eta enpresetan indartu gura den. Izan ere, Jon Sarasuaren bertsoetan irudikatzen den gizartea atzen hamarkadetan antzaldatuz joan da: egun *obrero* hitza zaharkitua geratu dela dirudi, euskal gatazka politikoaren fase bat bukatu da, euskalgintzan inoizko adostasunik zabalena dago eta jendearen eguneroko bizi ohiturak asko aldatu dira aurrerapen teknologikoak direla eta, besteak beste. Egoera eta gizarte eredu berriaren altzoan erronka berriak ditu euskalgintzak mahai gainean.

Hurrengo orrietan barrena Euskaraldiaren aitzakiapean bi azterketa lerro garatuko dira. Bata atal kuantitatiboa. Bestea, aldiz, atal kualitatiboa. Lehena datuez ari da, bestea bizipenez eta balorazioez.

Lehendabizikoa, esaterako, Euskaraldiaren emaitzak egungo euskararen testuinguruan kokatzeko aproposa da, Euskaraldiaren pisu erlatiboa ulertzeko aproposa. Bigarrena, berriz, datu horien atzean dagoen aldartea ezagutzeko da egokia. Bata zein bestea, Txepetxen eta Fishmanen teorien laguntzarekin ikertuko dira.



## **2. Joshua A. Fishman, Txepetx eta Euskaraldia, hiztunen peskizan**

Euskalgintza Barakaldora iritsi eta beste bide baten atarian dago, horixe da labur esanda orain artekoan esan dena. Ezagutzaren bidean pilatutako kilometro mordoa lepoan hartu eta erabileraren bideari ekiteko tenorean da euskalgintza. Halere, bide hori urratzen hasita dago, jada: euskararen erabilera areagotzeko aisialdiarekin lotutako ekintzak sortu dira tokian tokian, kirolean euskara txertatzeko gauzatu dira egitasmo ezberdinak, arestian aipatutako euskararen erabilera sustatzeko ekimenak (BAM, Mintzalasai), besteak beste. Izan ere, Mikel Zalbidek eta Olatz Altunak iradoki bezala erabilera da hizkuntza baten bizitasunaren termometrorik behinena: erabiliz ikasten da hizkuntza. Gaurtik aurrerako norabidean hiztunak erabileratik sortzea da euskalgintzaren erronka behinena. Erabileran oinarrituta antolatu da Euskaraldia, euskararen erabilera areagotzeko asmoz. Hala, Joshua A. Fishman eta Jose Maria Sanchez Carrion soziolinguisten laguntzarekin, Euskaraldian izena eman duten hiztunen nolakotasuna eta funtzioa aztertuko da ondorengo lerrootan.

### **2.1. Joshua A. Fishman: Belaun Arteko Etenaren Neurria**

Euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egin gura den kinka honetan, erabilgarri suerta liteke Joshua A. Fishmanen ekarpen teorikoa. Joshua A. Fishman soziolinguista estatubatuarrak hizkuntzen desagerpenerako arriskuak sailkatu guran 8 puntuko zerrenda bat osatu zuen. Euskaraz BAEN izenez zabaldua: Belaun Arteko Etenaren Neurria izenez, hain zuzen. Fishman-ek osatu 1-tik 8-a bitarteko eskalak, hizkuntza galtzeko arriskuen graduazio igoera irudikatzen du. Hots, lehenengo puntua, esaterako, arrisku gutxien adierazten duen maila da. Aldiz, 8.a larritasunik handiena erakusten duen arrisku maila, hizkuntza batek izan dezakeen situaziorik okerrera.

Fishman-ek azaltzen dituen 8 puntuko zerrendak, hartara, aukera ematen du antzemateko hizkuntza baten egoera zelakoa den, zein arrisku duen galbiderako. Hau da, ea euskara gaur egun non dagoen edo zein arrisku maila jasateko trantzean dagoen, erabilera jaisten ari den honetan arriskua zein litzatekeen jakiteko, adibidez.

Esaterako, arestian aitatu lez euskara indartsu zegoela uste zen lekuetan gertatzen ari den erabilera jaitsiera eta eremu erdaldunak guztiz euskaldundu ezina aldarte jakin baten ispilu da. Norbere intuizioak intuizio Fishmanen zerrendan begiratuta panorama horren larritasuna zelakoa den ebaluatu daiteke.

Fishman-en lehen arrisku puntua, hizkuntza batentzat arrisku maila txikiena duena, unibertsitate inguruetan nahiz goi mailako postuetan kokatuta dago. Izan ere, Fishman-en aburuz goi karguetan hizkuntza gutxitua ez erabiltzea ez da berez hain larria. Ez da sintoma ona goi postuetan zein unibertsitatean euskara ez egotea, noski; baina bada goi kargu horiek baino gizarte esparru garrantzitsuagorik hizkuntza gutxitu batentzat.

Hala, hizkuntza baten galeran arriskutsuak diren eremuetara iristeko asmoz, Fishman-en zerrenda oin puntetan igaro eta unibertsitatetik edo goi karguez osatutako gizarte esparrutik behe klaseetarako bidea jarraituz 6. arrisku mailara iristen da bat. Isil matuka pasa dira goi karguak, administrazioa, lan esparrua, eskola eta alfabetatzearen arrisku mailak. Goitik beherako norabidean ustez garrantzitsuena denetik garrantzi bako eremuetara norabidean 6. arrisku mailarekin egiten da topo. Fishmanen aburuz maila honetan du hizkuntza gutxitu batek kanpamentu basea eraiki beharra. Zeren, mailaketa puntu honek azpimarratzen duen arriskua hizkuntzaren etxeko eta inguru hurbileko transmisio etena da, euskararen transmisio etena familian eta inguru hurbilean, alegia: *“aiton-amonek, gurasoek, seme-alabak, euskaraz dakite, baina eguneroko bizimoduan beraien artean gero eta maizago ari dira erdaretan.”*

Lortu dira eskolak euskalduntzea, unibertsitatean euskaraz jardutea, Barakaldon euskaldun berriak ernatzea, eremu formal eta jasoetan euskara txertatzea, baina azken kale neurketek erakutsitako erabilera jaitsierak erlazioa du batzuetan gehiago besteetan gutxiago Fishmanek aitatzten duen 6. mailaren arriskuarekin. Izan ere, etxean, auzoan, lagun artean, kalean, eguneroko bizimoduan, oro har, euskararen erabilerak langa jo eta beheranzko bidean dagoenaren zantzuak bistaratu ditu. Euskaingintzan sortu da, normala denez, 6. maila honek irudikatzen duen arriskuarekiko kezkarik eta ezinegonik.

Kezkok badute funtsik, ez bada ere Fishmanen BAEN (Belaun Arteko Etenaren Neurria) zerrendako azken bi mailak, 7-a eta 8-a, hizkuntza transmisio etenaren adibide ezin argiagoak direlako.

Batek hiztun zaharrez soilik osatutako komunitatea irudikatzen du, zaharren artean hizkuntza horretan komunikatzen dira, harreman sare bat badute, baina gazteagoen artean jada ez. Besteak, 8. mailakoak, azken mohikanoak dira, hiztun apur batzuk soilik geratzen dira eta elkarrengandik sakabanatuta daude. Ez dute harreman sarerik. Hizkuntza bat galbidean da azken bi maila hauetan aurkitzen bada.

Hori dela eta, Euskaraldiak bere lehendabiziko ekitaldiarekin Fishmanek 6. mailarekin iradokitako arriskuari oratu eta eguneroko bizimoduan euskara gehiago erabiltzean jarri du arreta, transmisioa ez etetea. Fishmanek iragarritakoari erantzunez euskalgintza ohartu da orain artean urratutako bideari buelta ematearen garrantziaz.

Goitik beherako hizkuntza normalizazio egitasmoak burutu barik, goi klasetik behe klaseetarainoko ekintza planak sustatu barik, behe klasetik gorakoa egitea proposatzen du Fishmanek, inguru hurreko transmisioa lehenetsiz. Honek zenbait egitasmo moldatu beharra iradokitzen du, ezagutza hedatzeaz gainera erabilera sustatu beharra dagoela, batik bat; hizkuntza baten osasun egoera erabileraren bizitasunak erakusten baitu ondoen. Euskaraldiak eguneroko hizkuntza ohiturak eraldatzea du erronka; batez ere, lagun artean, etxean, eguneroko kontuetan... Fishmanek zerrendatuko 6. arrisku mailarekin lotura zuzena du zeregin horrek, beraz. Euskaraldiak bi norabideko langaia eduki du esku artean: eremu euskaldunagoetan euskararen erabilera indarberritzea eta eremu ez hain euskaldunetan euskararen erabilera normalizatzea. Orain artean, agian, eremu erdaldunak euskalduntzera bideratu dira indarrak. Hotzean begiratuta lorpen ezin hobekak ekarri dituen, bidenabar.

## 2.2. Txepetx: Gune Sinbolikoa

Jose Maria Sanchez Carrion Txepetxek ere Fishmanen antzera goi klase eta botere guneak lehenetsi beharrean oinarriak sendotzeari garrantzi handiagoa ematen dio, zorua tinko eusteari, oinpea ez dadila mugitu badaezpada ere.

Lege bermeak eskuratu aitzin, euskarak esparru funtzioak eskuratu aurretik edo erabaki gune oro zein eremu formalak konkistatu baino lehen, Txepetxek dio muina hizkuntza gutxituko hiztunengan dagoela, hiztunok osatzen duten gune sinbolikoan.


Txepetxen aburuz hizkuntza baten normalizazioan ezinbestekoa da gune sinbolikoaren funtzioa. Hizkuntzaren garapen osoa burutzeko aukera ematen du gune sinbolikoak. Txepetxentzat hizkuntza indartzearen gakoa gune sinbolikoa osatzean datza. Zelan osatzen da gune sinbolikoa, ordea?

Hizkuntza baten erabileraren, ezagutzaren eta motibazioaren arteko elkar elikatze etengabeak sortzen du gune sinbolikoa. Hiru faktoreok erabilera, ezagutza eta motibazioa elkarren menpe daude eta zirkuitu bat osatuz une oro ari dira elkarri eragiten. Elkar eragitea bi norabidetan gauzatzen dela dio Txepetxek: batetik, norabide naturala eta, bestetik, norabide kulturala.

Norabide naturala haurtzaroan hasten den hizkuntza jabekuntzan zedarritua dago: erabilera, ezagutza eta motibazioa norabidean hain zuzen. Haurtzaroan hasten denez berezko prozesutzat jotzen da; naturala. Beste jabekuntza norabidea, berriz, haurtzarotik gorakoa edo helduarokoa da. Hizkuntzaren jabekuntza norabide hau kulturala da. Kasu honetan norabidea kontrakoa da: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Zirkuitu naturalari A deituko dio eta zirkuitu kulturalari B.


Txepetxen irudiko, bai AB (jatorrizko hiztun kulturizatuak) eta bai BA (heldu bertakotuak), bi-biak dira hizkuntza baten gune sinbolikoa eratzeko funtsezko jabekuntza prozesuak, funtsezko jabekuntza norabideak.

## Hizkuntzaren garapen osoa: AB-BA



Alabaina, Txepetxek hiztun osoak eratzeko orduan gune sinbolikoaren norabide bikoiztasuna aldarrikatzen duen eran, hiztun talde egituratua eraikitzerakoan zentraltasuna AB norabideari egozten dio. AB jabekuntza ibilbideak; erabilera, ezagutza, motibazioa norabideak, Fishman-ek 6. arrisku puntuan deskribatzen duen antzera, hizkuntza baten erreproduktzioarako gakoa erabileran zertzen du.

## Gune Sinbolikoa



Hizkuntzaren garapen osoa erdiesteko eremua da gune sinbolikoa, bai A-tik B-ra eta bai B-tik A-ra, bi-biek, AB eta BA ibilbideek, hiztun osoak bermatzen dituzte. Txepetxek hizkuntza komunitate baten egituraketan AB oinarritutako jabekuntza ibilbidea lehenesten du BA jabekuntza ibilbidearen aurretik. Jabekuntza ibilbide naturala, oinak erabileran finkatzen dituen, hain zuzen.

Fishman-ek ere 6. mailako arriskuaz ohartaraztean etxeko, auzoko, lagun arteko edo norbere inguru sozial hurreko hizkuntzaren bizitasunean, erabileran jartzen du arreta. Fishmanek azpimarratutako jardun gune horiek dira hiztun osoak sortzeko behar-beharrezkoak diren bizi funtzioak, hiztun osoak gai izan behar du eguneroko jardun arruntak euskaraz egiteko. Txepetxek hiztunaren nolakotasuna deskribatzen du eta Fishmanek hiztunaren jardun gune erabakigarriak zeintzuk diren azaltzen.

Txepetxek eta Fishmanek planteatutako bitarako jokalekuak, hiztunen nolakoak eta jardun guneak uztartzen dituenak, orain arteko euskalgintzaren paradigma aldatzea edo moldatzea dakar beren-beregi. Barakaldotik asagokoak. Euskaraldia izan da Euskal Herri mailan paradigma aldatzen ari denaren Euskal Herri mailako lehen zantzua. Euskaraldiak euskararen ezagutza ordez, euskararen erabilera du jo puntuan.

### **2.3. Euskaraldia: ahobiziak**

Hasieran aitatu da Euskaraldia ekimenak iraun duen 11 egunetan rol ezberdinen arabera parte hartzeko aukera egon dela: batetik, ahobizi rolean eta, bestetik, belarriprest rolean aritzekoa. Ahobiziek lehen berba eta elkarrizketa osoa euskaraz garatzeko zeregina izan dute, pareko solaskidea euskaldun hartzailea edo euskara ulertu bai, baina berba egiteko kapaza ez dena izanik ere.

Bestetik, belarriprest rola hautatu dutenek eginkizun pasiboagoa eduki dute. Ez dute lehen berba euskaraz egiteko obligaziorik izan eta maiz euskara maila ezberdineko belarriprestak egon badira ere elkarrizketa euskaraz gara zedin sostengu lana egin dute, nahiz eta euskara erabiltzeko kapazegiak izan ez.

Belarriprest rolean, edozelan ere, euskaraz bizi-bizi aritzeko gai diren batzuk egon direnez, eta, era beran, euskara maila ezberdinetako profilak egon direnez, zaila suertatzen da rol honen nondik norakoak zehatz mehatz zukutzea. Are, zailagoa rol horretako profil aniztasuna mehartztea.

Hartara, belarriprest rolean parte hartutakoak apur bat alboratu eta ahobiziengan jarriko da arreta, txepetxek deskribatutako hiztun osoen profila hein handi batean beraiek betetzen dute eta.


### 2.3.1. Ahobiziak eta Gune Sinbolikoaren sustraitzea

Txepetxek aipatutako hizkuntza garapen osoaren ordezkari behinenak dira ahobiziak. Hots, euskararen jabekuntza ibilbidea era naturalean edo era kulturean burutu dute. Hautzarotik euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa garatu dute edo helduaroan motibazioa, ezagutza eta erabilera prozesua burutu.

Baina, ahobiziak Txepetxek deskribatutako gune sinbolikoa osatzeko ezinbestekoak diren hiztun oso ez eze, hizkuntza indartzeko funtsezkoa den izateko nahiaren ordezkari ere badira, euskararen erabilera sustatzeko asmoz Euskaraldia bezalako ekimen batean izena eman dutelako, besteak beste. Hau da, Txepetxek gune sinbolikoa sustraitzeko izateko nahiaren beharra aldarrikatu ohi du ezinbesteko urrats legez.

Zeren, gune sinbolikoa osatzea gakoa baldin bada hizkuntzaren biziberritzean, gune sinbolikoaren sustraitzea (izateko nahia) pausu erabakigarria da: hiztunen berraktibazioa bultzatzen du, komunitateko kide izateko nahia adierazi eta hiztunaren kontzientzia maila nahikoa erakutsi. Izateko nahiaren bultzadarekin aipatu gune sinbolikoa sustraitu egingo da. Gune sinbolikoaren sustraitzearen ordezkari dira ahobiziak, hortaz.

#### Ahobiziak: Gune Sinbolikoaren Sustraitzea




Ahobiziak hezurmamitzen duen izateko nahia, halaber, egungo paradigma aldaketak eskatzen duen iragazkitik pasea da, ezagutzatik baino erabileraren iragazkitik esan nahi da. Barakaldotik asagoko izateko nahitik. Badira, ba, hainbat kamisetetan edota etxe ezberdinetako balkoietan banderolak “euskaraz bizi nahi dut” leloa dutenak. Azken batean, ahobiziena bide beretik doa, izateko nahi berbera adierazten dute eta, euskaraz biziitzea.

Euskalgintzan orain arte atondutako euskararen aldeko ekimenak motibaziotik edo ezagutzatik izan dute gehiago. Ikastolek edo Euskal Eskola Publikoen bultzatutako jaiak euskararen ezagutza eta motibazioa izan dute ardatz. Korrikak berak ere euskararen aldekotasuna eta, bide batez, euskararen ezagutzara hurreratzea dute asmo. Ahobiziek, aldiz, aurreko biak ez bezala izateko nahia euskararen erabileran oinarritzen dute.

### 2.3.1.1. Ahobiziengan oinarritutako euskararen komunitate egituraketa.

Euskararen komunitatea erabileratik egituratzeko, beraz, kulturizatu diren hiztun naturalen (AB) eta naturalizatu diren hiztun kulturalen (BA) sustraitzea urrats erabakigarria da. Ahobiziak erabakigarriak dira euskararen erabilera areagotzeko. Txepetxek, hartara, hizkuntza komunitate egituratua gune sinboliko sustraituaren bueltan atontzen du. Ondoren, geruzaz-geruza talde soziolinguistiko ezberdinak pilatuko dira. Gune sinbolikoaren bueltan kulturizatu ez diren hiztun naturalak (A) eta naturaltasunik lortu ez duten hiztun kulturizatuak (B) kokatzen dira. Horien ostean kokatuko lirateke hiztun erdaldun elebakarrak (Q).

#### Hizkuntza komunitate egituratua



**G. S. nuklearizazioa:** ahobiziak

**Gune Sinbolikoa:** AB-BA

**Hiztun kulturizatu gabea:** A

**Hiztun naturalizatu gabea:** B

**Erdal elebakarra** Q



Hala, Txepetxek erabileran oinarritzen duen hizkuntza komunitatean ahobiziak dira nukleo eta sustraia. Ostean, ahobizi legez izena eman ez edo izateko nahia adierazi ez, baina hizkuntza baten egituraketan beharrezkoa den gune sinbolikoa (AB-BA) osatzen duten hiztun osoak leudeke. Hauek ez dute ahobizi legez izenik eman arrazoi ezberdinengatik: ekimen sozialetan parte hartzeko ohiturarik ez dutelako, jada euskaraz bizi direla eta gehiago inplikatu beharrik ikusten ez dutelako, euskalgintzan erreta daudelako, gaztetxoak direlako (ez ahaztu 16 urtetik behera ez dutela parte hartzerik eduki Euskaraldian eta hiztun oso mordoa dago adin horretan), hizkuntza ez dela politizatu behar diotelako eta abar. Horrez gain, aintzat hartzekoa da euskaldunak diren zenbait herri txikik ez dutela Euskaraldiaren ekimenean parte hartu. Esate baterako: Ziortza-Bolibar, Mutiloa, Nabarniz... Herrixka hauetan esan daiteke euskara araua denez esanguratsua dela inork izena eman ez izana. Baliteke, halere, inguruko herri handiago baten bidez parte hartu izana.

Edozelan ere, Euskaraldian ahobizi legez izena eman ez dutenak hiztun osoak dira, egunerokoan euskaraz bizitzeko gai dira eta esan bezala ezinbesteko gunea osatzen dute. Ondoren, euskararen hiztun primarioak (A) edo kulturizatu bako hiztunak kokatzen dira. Euskararen hiztun primarioak (A) euskaldun zaharrak dira, umetan euskara jaso eta erabili dute, baina ez dute euskararenganako motibazio berezirik, ez eta atxikimendurik. Are, profil honetakoak maiz, Xabier Paya bertsolariak Berrian idatzitako artikuluan esan bezala auto gorrotoaren ispilu dira.

Hau da, euskara nolabait gutxietsi (askotan ez publikoki) egiten dute eta ez dute beraien inguruan transmititzen. Adibidez, Julian Retegi pilotari ezagunak semeari euskara transmititu ez izanak atera zuen bere sasoian harrabotsik. Bueno, ba, Julian Retegi bera izan daiteke hiztun primarioen adibide bat.

Hiztun kulturizatuak (B) edo hiztun naturalizatu bakoak datoz hurrena. Hiztun hartzaileak euskara ulertu bai, baina berba egiteko gaitasun handiegirik ez dutenak leudeke sailkapen honetan.

Hau da, euskara ikasteko pausua eman dute, motibazioa landu dute, baina oraindik ez dute lortu euskaraz nahi haina komunikatzeko ahalik. Eguneroko bizimoduan euskaraz bizitzeko gairik.

Edozelan ere, Txepetxek hiztun kulturizatuen balioa hiztun primarioen ostean jartzen badu ere, Xabier Payak, adibidez, hiztun kulturizatuen garrantzia lehenestea aldarrikatzen du. Izan ere, naturalizatu bako hiztunek (B) hiztun hartzaileek, hiztun primarioek (A) baino desira handiagoa dute euskaraz bizitzeko, izateko nahi handiagoa erakusten dute. Ezen, ez baita bide xamurra euskara ikasten hastea eta hainbat ordu euskaltegian pasatzea, beste hainbat zeregin dauden bitartean. Interesgarria, zinez, Xabier Payak aipatzen duen ñabardura hori, txepetxena apur bat ezbaian jartzen duena.


Txepetxen hizkuntza komunitate egituraketaren azken geruza erdaldun elebakarrak (Q) edota euskara ez den bestelako hizkuntzak dakizkiten erdaldunak leudeke. Horiek ez dira momentuz euskararen komunitatera larregi hurreratu, baina eragin nabaria dutela begi bistakoa da. Ahobizien bueltan, beraz, geruzaz-geruza Txepetxek deskribatutako ((AB,BA), A,B,Q) hizkuntza komunitatea egituratuko litzateke. Hori da Euskaraldiaren azken buruko xedea edo jarraitu beharreko bide orria, non ahobiziek egituraren nukleoa osatzen duten.

Izan ere, orain arteko paradigma, Barakaldok ordezkatu duen paradigma, ezagutzan oinarritu da eta hizkuntz komunitatearen egituraketa ezberdina izan du. Txepetxek komunitate desegituratua deitu izan dio horri. Hau da, erdal elebakarrak (Q) izan dira erdigunean eta euskararen gune sinbolikoa periferian.

Erdaldunak zentroan dauden komunitatean, apurka-apurka, euskararen gune sinbolikoak erdigunea irabaziko lukeen egituraketa prozesua irudikatuz. Fishmanek lehenesten ez duen gizarte esparruen goitik beherako egituraketaren antzera. Garaiotan badirudi, baina, erabilera ezagutza haina edo gehiago lehenetsi beharreko faktorea izango dela. Dena den, tokian tokian uztargarriak izan daitezke bi komunitate egituraketa prozesuak, batak ez du bestea kentzen.

## 2.4. Ezagutzatik erabilerara: ahobiziak Barakaldotik harago

Txepetxek hiztunen nolakotasunean hezurmamitzen du teoriaren muina, hau da, hiztun osoak euskararen erabileratik eratzeko ahaleginean. Horretarako, ahobizen eginkizuna funtsezkoa deritzo. Joshua A. Fishmanek, aldiz, hiztun horien jardun gune edo funtzioetan; etxea, familia edo inguru sozial hurbilean. Bi-biek, baina, erabilera dute abiapuntu eta helmuga:



Euskararen ezagutzatik asago han-hemenka euskararen erabilera areagotzea da egungo euskalgintzaren erronka nagusia, euskara eguneroko bizimoduan txertatzea. Barakaldok iragan hurreko euskalgintzaren paradigma ordezkatzeko du. Euskara inguru erdaldunetara eta eremu formal nahiz botere gune orotara hedatu behar zeneko paradigma. Egungo euskararen aldarteak, ordea, bestelako panorama du begi bistan: eremu erdaldunak ez dira guztiz euskaldundu eta eremu euskaldunetan euskararen erabilera jaisten ari da. B-tik A bitarteko jabeakuntza prozesua lantzea ondo dago, BA hiztun profila eratzea ondo dago beharrezkoa da. Baina Txepetxek berak eta Fishmanek iradoki legez A-tik B arteko jabeakuntza prozesuak, AB profileko hiztunak dira hizkuntza baten bizitasunaren berme nagusiak.

Ezagutza alboratu barik eta orain artean egindako lan eskerga aintzat hartuta, euskara bizia gura bada erabileran hezurmamitutako hiztunak sustatu beharko dira: AB profildunak. Profil horiek sortzeko ahobizien akuilu lana ezinbestekoa izango da.

Erabilera da hizkuntza baten osasun on ala txarraren adierazle behinena. Euskaraldia, zentzu horretan, erabilera ardatz duen lehen ekimen nazionala izan da. Barakaldotik irteten hasi denaren zantzua.

Euskaraldia izan da lehen aldiz euskararen erabileran oinarritutako gune sinbolikoaren (hiztun osoen) sustraitzea (izateko nahia) zenbakitara ekarri duena, itxura eman eta ikusgai egin duena. Ahobiziek ordezkutzen dute euskararen erabileran oinarritutako hiztun osoen berraktibazioa. Barakaldotik irten eta ahobizien bultzadaz AB profilez osatutako gune sinbolikoa hedatzea da hurrengo urteetako zeregina, erabilerara bideratutako hiztun osoak osatzea.

### **3. Euskaraldiaren datu eta testigantzen azterketa.**

Atal honetan, Euskaraldiaren datuen eta testigantzen azterketari emango zaio bide. Bi informazio iturri hauek, datuak eta testigantzak kontrastatu eta emaitzak uztartzea da eginkizuna. Lehenengo partean zenbakiei egingo zaie azpimarra. Bigarren partean, aldiz, testigantzei. Batak kutsu kuantitatiboa du eta besteak kualitatiboa. Datu zein testigantzen atalean Txepetxen teoriari segika gune sinbolikoaren sustraitzea erakusten duten ahobiziei emango zaie lehentasuna. Batean ahobizien portzentaiak aipatuko dira, bestean ahobiziek esaten dutenari erreparatuko.

Orain arteko bidean, lantzean-lantzean, makulu gisa erabili diren eran, datorren atalean Inkesta Soziolinguistikoaren eta Kale Neurketaren atzen datuak lagungarri izango dira. Era berean, ahobizien datuak zein testigantzak Euskaraldiaren web gunetik eskuratu dira.

Ondorengo lerrootan Euskal Herriko ahobizien portzentaien berri emango da.


#### **3.1. Euskaraldiaren datu azterketa: Ahobiziak Euskal Herrian**

Euskaraldiko parte hartze datuak aztertzeke, halere, lehendik eta behin, Euskal Herri mailakoak aipatuko dira, ondoren banaketa administratiboaren arabera Ipar Euskal Herriko, Nafarroa Garaiko eta EAEkoak.

Datuen kimatze lanarekin bukatzeko lekuan lekuan ere egingo da analisisirik.

Euskal Herri osoan, bi rolak aintzat hartuta (ahobizi eta belarriprest) %8,5-eko parte hartzea izan du Euskaraldiak. gHau da, hasierako orrian aipatutako 225.154 parte hartzaileek Euskal Herriko biztanleriaren %8,5-a ordezkutzen dute. 225.154 horietatik 163.927, berriz, ahobizi rolean aritu dira. Hau da, portzentaietara ekarrita %6,17. Ahobiziek Euskal Herri osoko %6,17 osatzen dute. Balio hori da, bueltan-bueltan, Euskal Herri osoko euskararen kale erabilera hauspotu eta areagotzeko palanka lana egingo duen hiztun oinarria: 163.927 pertsona, alegia.

### Ahobiziengan oinarritutako euskararen komunitate egituraketa Euskal Herrian



Nukleo horren jiran, ahobizien gune sinbolikoaren bueltan daude kokatuta, arestian aipatu legez, Txepetxen gune sinbolikoa osatzeko jabeakuntza prozesua bukatu ez duten hiztunak, kulturizatu ez diren hiztun naturalak direnak. Bestalde, euskara erabili guran ari direnak dira ondoren datozenak, hiztun hartzaileak, kulturizatuak. Azken ertzean kokatzen dira, halaber, elebakar erdaldunak.

Euskal Herria aniztasun handiko lurraldea da, ahobizien batez besteko portzentaia %6,17 bada ere, lurraldez-lurralde eta eskualdez-eskualde datuak begiratu gero, gora behera itzelak antzeman daitezke.

Euskarari dagokionez errealitateak total diferenteak dira Baionan eta Amoroton, Zarrakaztelun eta Muskildin, Abaltzisketan eta Biasterin edo beste ezein herri nahiz hiritan.

### **3.1.1. Ahobiziak Ipar Euskal Herrian**

Ipar Euskal Herrian badaude berez zonalde euskaldun xamarrek direnak eta euskara egunerokoan presenteago aurkitzen diren inguruak, baina badaude zeharo erdaldunak direnak ere. Esan behar da Euskaraldiaren parte hartze daturik baxuenak Ipar Euskal herrian eman direla, bai portzentai aldetik eta baita kopuru aldetik ere.

Kopuruaren araberako parte hartze baxua aurreikustekoa zen jende gutxien inguruotan bizi delako. Pentsatzekoa da, aldi berean, halakorik gertatzea euskara ofiziala ez izateak, besteak beste, eragina duelako euskararen egunerokoan. Ipar Euskal Herrian Euskaraldian parte hartutako ahobizi kopurua 4.283 pertsonakoa da. Kopuru hori portzentaletara pasata %2,34.

Ahobizien emaitza ez da ezusteko kontua, ez eta harrigarria Ipar Euskal Herriko euskararen egoera aintzat hartzen bada. 2016-ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak adierazten du Ipar Euskal Herrian inoizko kale erabilera indizerik baxuena eman dela: %5,3, hain zuzen ere. Kale neurketak egiten hasi zirenetik emaitzarik baxuenak dira Iparraldeko euskararen erabilerari dagokionez. Erabilera jaitsiera ez eze, Ipar Euskal Herriko euskararen estatusa ezbaian dago urteak joan urteak etorri. Frantziako estatuak hizkuntza bakar eta ukiezinaren aldeko politika darabil aspaldidanik eta, zeharka-zeharka, lege bermeak ukatzeaz gain, euskararen eta bestelako hizkuntza gutxituenganako prestigio ahultzea bideratu du.

Ipar Euskal Herrian euskarak ofizialtasunik ez du, prestigio eskasa du, eta, horregatik, askok euskara transmititzeari muzin egin diote, Fishmanek 6. mailan aipatzen duen arriskuen ezaugarria zeharo beteaz. Egoera horrek Txepetxek ezinbestekotzat jotzen dituen hiztun osoen eraketa are gehiago zailtzen du.

Ipar Euskal Herrian hiztun osoek osatzen duten gune sinbolikoa murrizta da eta, hori dela eta, ahobiziek ordezkatzeko duten hiztun osoen izateko nahia, berariaz, ahulagoa. Izateko nahia guztiz subjektiboa dela uste arren, neurri handi batean kanpoko eragina ere bada.

2016-ko Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen harira ondorioztatu zen, esaterako, hizkuntzarekiko ezagutzak eragin zuzena duela hizkuntzarekiko aldeko jarreran. Hau da, zenbat eta gehiagok ezagutu hizkuntza, aldeko jarrera ere handitu egiten dela berariaz. Elkar eragin horrek azaltzen du azken urteetan (2016 Inkesta Soziolinguistikoa) Ipar Euskal Herrian euskararen erabileraren kontrako jarrera handitu izana: %12-tik %17-ra igaro izana hain zuzen.

Euskararen transmisio etena gertatu izana bistakoa da Ipar Euskal Herrian. UNESCOk arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasean Ipar Euskal Herriko euskararen egoera guztiz arriskuan dauden hizkuntzen sailean kokatzen du:

*“amona-aitonen belaunaldiak berba egiten du bakarrik, eta gurasoen belaunaldiak ulertu egiten du, baina beraien artean ez dute erabiltzen eta seme alabei ez diete hizkuntza transmititzen”.*

Dena dela, badirudi esperantza mantentzeko bi arrazoi daudela, sikiera. Batetik, Ipar Euskal Herrian eremu guztiek ez dute euskararen erabilera aldetik jaitsiera jasan. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, adibidez, azken kale neurketak euskararen erabileran igoera adierazten du. Bestetik, kale erabilera jaitsiera adin tarte ia guztietan jazo bada ere, haurren arteko euskara erabilera igo egin da. Gainera, Euskal Elkargoa sortu izanak eta euskararen inguruko adostasun oinarrizkoa garatu izanak, gerora sortu dezake fruitu emankorrik. Badirudi, apurka-apurka, euskararenganako sentsibilizazioa handitu daitekeela Ipar Euskal Herrian, nahiz eta Inkesta Soziolinguistikoaren bilakaerak adierazten duen azken 20 urteetan euskara erabiltzearen aldekotasunean jaitsiera bat. Joera hori antzaldatzeko zantzuak daudela dirudi. Hala dela pentsatu gura bai, behintzat.

### 3.1.1.1. Ahobiziak lekuan-lekuan

Datuak eskualdeka aletuz gero, ahobizien pisuari dagokionez ezberdintasunak eta gora-behereak nabarmenak dira lekutik lekura. Hartara, ahobizien portzentai handiena Iholdi Oztibarre eskualdean eman da %6,4. Ipar Euskal Herriko ahobizien batz bestekotik gora.

Inguru horretan eman da hiztun osoen izateko nahiaren portzentai handiena. Ondoren Garazi Baigorri eskualdea legoke %5,78 portzentaiarekin. Bi-biak Nafarroa behean kokatuta daude. Balio hauek sintonian daude kale neurketak azpimarratutakoarekin, zeinak esaten zuen Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskararen kale erabilera igo egin dela azken behaketan.

Parte hartze tasa txikiena izan duten hiru eskualdeak, Bidaxune, Errobi Atturri eta Lapurdi kostako hirigunea izan dira. Biztanle dezente gehiago bizi denez Lapurdiko kostaldean, Baionan, Miarritzen, Angelun kopuru aldetik ahobizien parte hartze handiagoa izan da, baina biztanleriaren araberrako portzentaiei erreparatuta azken aurreko emaitzak batu dira Lapurdiko kostaldean %0,37. Bidaxunen, berriz, baliorik baxuena %0,36 eta Errobi Atturrin %0,66 ere baxuenetakoa. Ahobizien parte hartze eskasa, beraz, hiru eskualde hauetan.

Ahobizien edo hiztun osoen sustraitze agerikoena landa eremuko zenbait herrietan nabari da, batez ere, Nafarroa Behereko landa eremuan: Gamarte % 32,15, Bunuze %12,5, Irisarri %11,99, Donibane Garazi %11,2 edota Bidarra %10,7. Donibane Garazi da, ordea, Euskal Herri osoko hiriburuen artean ahobizi portzentai altuena duena %11,32. Kopuruz, baina, beste hiriburuekin konparatuta biztanleria baxuagoa duenez zenbaki apala da, 160 pertsonen eman baitute izena ahobizi legez. Ipar Euskal Herriko hirigunean (BAM) eta bitarteko herrietan, bestalde, euskararen erabileran oinarritutako izateko nahia gutxiago adierazi da. Bitarteko herriei dagokionez, esaterako, Hendaia du tasarik altuena %3,98.

Ipar Euskal Herriko hirigune eta herri nagusietan kopuru aldetik Baionan, Hendaian zein Donibane Lohizunen, Nafarroa Beherea eta Zuberoan baino jende gehiagok eman du izena ahobizi moduan.



Portzentaje aldetik, baina, Nafarroa Behereko zenbait herritako edota Zuberoako Muskildin (%11,24) biztanleriarekiko ahobizien eragina indartsuagoa da. Baionako ahobizien tasa, adibidez, %0,67 izan da. Hots, 277 pertsona. Gamarteko ahobizi kopurua, aldiz, 28 pertsona; baina portzentaia %32,15.

### **3.1.2. Ahobiziak Nafarroa Garaian**

2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera euskararen erabilera sustatzearen kontra jende gehien batzen duen lurraldea da Nafarroa, nahiz eta aurreko inkesta soziolinguistikoarekin alderatuta beherako tendentzi bat ageri. Horrez gain, Ipar Euskal Herrian antzera Nafarroan ere euskararen ofizialtasuna ez dago lurralde osoan bermatuta. Hala, hiru zatitan dago sailkatuta euskararen egoera: eremu euskalduna (Nafarroa Iparraldea), eremu mistoa (erdialdea) eta eremu ez euskalduna (hegoaldea). Euskara ofiziala soilik eremu euskaldunean da, gainontzeko bietan ez. Nafarroan ahobiziak biztanleriaren %2,99 dira, kopuruz 16.007 pertsona. Nafarroako biztanleriatik 16.007 pertsonak adierazi dute izateko nahia, euskaraz bizitzeko nahia Euskaraldiaren bidez.

Ipar Euskal herriko kasuan aipatu lez azken Inkesta Soziolinguistikoaren balorazioetan ondorioztatu zen euskararen erabileraren kontrako jarrerak ezjakintasunarekin izan ohi duela zerikusia, zenbat eta gutxiago ezagutu euskara orduan eta kontrakotasun handiagoa ageri ohi dela.

Hori dela eta, azpimarratu behar da Nafarroan ere euskararen aurka agertzea estatus kontua dela, eta masa sozial ez txikia hartzen duela bere baitan. Hartara, euskararen erabileran oinarritutako gune sinbolikoa indartzerakoan nabarmentzekoa da Q profilak duen garrantzia Nafarroa Garaian. 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera %76,7 puntukoa da erdaldunen portzentaia, Ipar Euskal Herrian baino 6 puntu altuagoa eta EAEn baino 30 puntu altuagoa. Aintzat hartzekoa, zinez.

### 3.1.2.1. Ahobiziak lekuan-lekuan

Biztanleriaren arabera ahobizien parte hartzerik altuenak Nafarroa iparraldeko eskualdetan eman dira. Denen buru Aralar Iparraldea aurkitzen da %17,64. Jarraian, Bortziriak %14,1, Baztan aldea %13,55 eta Bidasoa Garaia %12,28. Datuon ifrentzua Nafarroako hegoaldeko eskualdeek erakusten dute: Ebro Garaiko Erribera %0,38, Tuteria aldea %0,15 eta Arga Aragoiko Erribera %0,00 dira ahobizien eskualderik ahulenak.

Gune sinbolikoa sustraituen dagoen eremua, itxaron zitekeen moduan Nafarroako iparraldean topatzen da. Nafarroako ahobizien bi heren gutxi gora behera ordezkatzeko dute. Falta den herenaren zati handiena erdialdeko eskualdeek irudikatzen dute, non populazio handiena dagoen eremua ere sartzen den: Iruñerria %2,68, hain zuzen. Heren horren zati ñañoena Nafarroa hegoaldeari dagokio.

Ipar Euskal Herriarekin alderatuta, edozelan ere, Nafarroako hirigunean ahobizien presentzia sendoagoa da. Iruñean eta bere inguruan portzentaje eta kopuru aldetik ahobizi gehiago dago Baiona, Biarritz eta Angelun baino. 2016-ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketen arabera Iruñean euskararen erabilera azken bost urteotan bere horretan mantendu da. Ez da gutxi beste leku batzuekin konparatuz gero.

Bitarteko herriei dagokionez Altsasu da (%8,7) ahobizi portzentai majoenetakoa duena, Lizarra (%3,61), Tafalla (%2,91) apur bat baxuago ageri dira. Nafarroa hegoaldeko lurren aldean, ordea, zatia hobeto.

Nafarroa iparraldeko landa eremuan kopuruz ahobizi gehien batu ez arren, herri mailako biztanleen arabera ahobizien portzentaiarik sendoenak inguruotan ageri dira: Larraun %36,71, Arantza %27,69, Araitz %25,44 edota Zubieta %23,67. Ipar Euskal Herrian nola, Nafarroa Garaian ere landa eremuko herriak dira euskararen erabileran oinarritutako izateko nahi handiena erakusten dutenak. Hitzun osoek osatzen duten gune sinbolikoa sustraituena dutenak.

### 3.1.3. Ahobiziak Euskal Autonomi Erkidegoan

Euskal Autonomi Erkidegoan beste lurraldeekin alderatuta eremu guztian da euskara ofiziala. Gainontzeko bi lurraldeen ondoan, gainera, 2016-ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera euskara erabiltzearen aldekoa erkidegoko biztanleriaren bi heren dira. Era berean, Bizkaia eta, batez ere, Gipuzkoa dira Euskal Herri osoko eremurik euskaldunenak.

EAEEn 80-ko hamarkadatik hona legedi aldetik babes ganorazkoagoa eduki du euskarak, nahiz eta zenbait eremu Bizkaiko mendebaldea edota Arabako lurralde zati handi bat, Nafarroa Beherea edo Nafarroa Garaiko iparraldea bezain euskaldunak izan ez.

Dena dela, EAEEn jaso da ahobizien emaitzarik altuena, hiru lurraldeen artean: %7,57-ko portzentaia: kopuruz 143.637 pertsona. Bai Iparraldeko eta bai Nafarroa Garaiko ahobizien portzentajeak %2-aren inguruan daude. Koskatxoa dago EAE-ren eta beste bien artean, beraz. Bai portzentai aldetik eta, bai, batez ere, kopuru aldetik.

#### 3.1.3.1. Ahobiziak lekuan-lekuan

Koska dago, era berean, EAE barruko probintzien artean ere; batez ere, Gipuzkoa eta gainontzeko bi herrialdeen arteko ahobizi portzentajeetan: Gipuzkoan %12,48, Bizkaian %5,58 eta Araban %4,67. Eskualdeei dagokienez ere Gipuzkoan hiru eskualde izan dira aurrenak ahobizien portzentajetan: Urola kostaldean %20,83 Debagoienan %19,92 edota Tolosaldean %17,65. Bizkaian gune sinbolikoaren sustraitzea irmoena Lea Artibaiko emaitzek adierazten dute, Tolosaldearen parera iritsiz: %17,65. Araban, ostera, biztanleriaren araberrako ahobizien parte hartzerik sendoena Gorbeia inguruan eman da %12,37.

Ahobizien portzentaje ahulenak Araba aldean batu dira: Arabako Ibarrek %2,91 eta Trebiñuko konderrian %3,72. Baina, Bizkaian Bilbo bueltan eta Enkarterrietan ere Arabaren antzeko datuak jaso dira: Bilbo handian %3,75 eta Enkarterrietan %3,9.

Azpimarratu behar da biztanle kopuruz Bizkaia Gipuzkoa baino populatuagoa bada ere, Gipuzkoan ahobizi gehiago batu dela. Zatia gehiago, gainera, 20.000 biztanleko zatia.. Horrek adierazten du itxaron zitekeen bezala Gipuzkoa dela Euskal Herri osoko ahobizi edo erabileran oinarritutako izateko nahia, euskaraz bizitzeko nahia gehien adierazi duen herrialdea.

Bai Gipuzkoan, batez ere, eta, bai, partzialki Bizkaian, landa guneko herriak dira ahobizi portzentajerik altuenak batu dituzten udalerrri motak. Gipuzkoan %30-etik gorako batzuk badaude: Baliarrain %45,1 (Baliarrain da Euskal Herri osoko ahobizi tasa altuena duen udalerrria), Orendain %34,16, Gabiria %33, Altzo %32,06 edota Leintz Gatzaga %31,16.

Bizkaiko landa eremuan denetarik dago segun eta lupa non jartzen den, mendebaldean edo ekialdean. Aulestin eta Larrabetzun, adibidez, ahobizi portzentai majoak bildu dira, %30,89 eta %25,58 hurrenez hurren. Arabari dagokionez emaitzak apur bat baxuagoak izanagatik ez dira gutxietekoak inondik ere, Arabako udalerrri mailan jaso diren daturik onenak landa guneeetan eman dira: Zalduondo %22,5, Aramaio %22, Kanpezu %18,58 edo Villabuena %14,18.

Gipuzkoako zein neurri batean Bizkaiko bitarteko herrietan pisu majoa lortu dute ahobiziek. Gipuzkoan bitarteko zenbait udalerrietan lortu da ahobizien %20-ko tasa gaintitzea, besteak beste: Oñati %24,18, Bergara %22,81, Azpeitia %22. Bizkaian %20-tik gorako datuak izan dituen bitarteko herri bakarra egon da Lekeitio %21,99. Gernika, Ondarroa, Bermeo %20-tik apur bat beherago. Araban emaitza apalagoak izan arren datuak ez dira txarrak, esaterako, Amurrion %7,88 izan da ahobizien parte hartze tasa.

Donostia hiriburua da, era berean, EAeko hiriguneetan ahobizien portzentaiarik altuena duena %7,97. Are, Donostia da Euskal Herri osoko hiri gunerik irmoena ahobiziei dagokionez. Azpimarragarria da, bidenabar, Gasteizen ahobizi gehiago batu direla Bilbon baino. Eta nolabaiteko joera bat erakusten duela dirudi, Araban euskararen erabileraren sustraitzen doan neurrian, Bizkaian jaisten ari ote den. Izan ere, Gasteizen %3,99 dira ahobiziak eta Bilbon %3,49. aldea ez da handia, bai ordea esanguratsua.

### **3.1.4. Ahobizien bizipenen ondorio nagusiak**

#### **- Ipar Euskal Herria**

- Ipar Euskal Herrian Euskal Herri osoko ahobizien tasarik baxuena jaso da. Batez ere, Lapurdin eta Zuberoan eman dira daturik eskasena.
- Nafarroa Beherean, ordea, datu txukunagoak batu dira. Esaterako, Nafarroa Garaian baino datu hobetoak.
- Herrietako biztanleriaren arabera Nafarroa Behereko eskualde eta herrixketan eman dira ahobizien tasarik altuenak.
- Ahobizi tasarik kaskarrenetakoak, aldiz, Bidaxune eskualdean edota Lapurdiko kostaldeko hirigunean bildu dira. Baiona, Miarritze eta Angeluk osatzen duten hirigune populatuak.
- Nafarroa Behereko landa eremua da (Gamarte %32,15 ahobizi) Ipar Euskal Herriko ahobizien habia.

#### **- Nafarroa Garaia**

- Nafarroa Garaiko ipar partea da ahobizi gehien kontzentratu den lur eremua: Aralar Iparralde, Bortzirriak, Baztan, Bidasoa garaia eskualdeak, hain zuzen.
- Ahobizi tasa baxuena jaso den lur eremua, bestalde, Nafarroa Garaiko hegoaldean eman da. Tutera aldean edota Arga-Aragoiko erribera aldean.
- Nafarroa Garaiko ahobizien habia iparraldeko landa guneko herrixketan dago (Larraun %36,71).
- Nafarroa Garaiko hirigunean, Iruñerrian, Ipar Euskal Herriko hirigunean baino ahobizi kopuru eta portzentaje altuagoa jaso da.

#### **- EAE (Euskal Autonomi Erkidegoa)**

- Gipuzkoa da EAEko ez eze, Euskal Herri osoko ahobizien kabi, ahobizien kanpamendu basea. Urola kosta, Debagoiena edota Tolosaldea bezalako eskualdeak dira ahobizi portzentaje altuenak bildu diren eskualdeak.

- Batez ere, Gipuzkoako landa eremuko herri txikietan batzen dira ahobizi tasa altuenak: Baliarrain %45,1, Orendain %34. Gabiria %33. Horrez gain, Gipuzkoako bitarteko herriek ere, herri handiagoek ere ahobizien hauspoa badute: Oñati %24, Azpeitia %22, Bergara, Azkoitia...
- Bizkaian landa guneko herri txikietan, Aulesti (%30 ahobizi), Larrabetzu (% 25 ahobizi) Dima, Areatza eta bitarteko herrietan Lekeition (%21 ahobizi), Gernikan (%19 ahobizi), Ondarroan (%17 ahobizi), adibidez, kontzentratzen da ahobizien indargune nagusia.
- Araban ere landa guneko herrixkak dira ahobizien babes gune behinenak: Zaldondo (%22,5 ahobizi), Aramaio (%22 ahobizi), Kanpezu (%18 ahobizi), esaterako.
- EAEko ahobizi tasa baxuenak Bilbo eta ezker aldean nahiz Arabako hiriburu eta zenbait herrixketan eman da.

### 3.2. Euskaraldiko testigantzak

Aipatu ahobizien datuei ahotsa jartze aldera, Euskaraldiaren web gunean jendeak bere borondatez idatzitako testigantzak aztertuko dira hurrengo lerrootan. Testigantza hauek irakurri gura dituenarentzat Euskaraldiaren web gunean daude edonoren eskura. Ahobiziek beraien borondatez idatzitako testigantzak dira bertan aurkituko direnak, inolako obligaziorik barik burutuak.

Eta bertan bakoitzak Euskaraldiaren inguruan bizi izandakoaz idatz dezake edo Euskaraldiaren beraren gaineko hausnarketa plazaratu dezake. Hala nola, pasadizoak kontatuz, gustatu zaienaz edo gustatu ez zaienaz parte eman. Testigantzok badute metodo kualitatiboan erabili ohi den bitzta historia teknikarekin antzekotasunik. Zesar Martinez-ek EHUko soziologia irakasleak Hiznet graduondorako prestatutako ikasgaiaren zera dio bitzta historiari buruz:

*“Bitzta historiarekin bilatzen duguna da banakako esperientzia berezia ezagutzea, hots, subjektuaren definizioa bizi izan duen egoera bati buruz edota bere bitzta osoari buruz.*

*Zentzu honetan, esperientzia eta oroitzapen kontzeptuak funtsezkoak dira; azken finean, ez zaigu “egia” interesatzen, interesatzen zaiguna da subjektuak nola eraikitzen duen “bere egia”, nola ematen dien esanahia bere bizipenei” (Zesar Martinez, Egoera soziolinguistikoaren diagnosirako hurbilpena. Hiznet 2018/2019)*

Edozelan ere, dena esaten hasita bizitza historian elkarrizketa irekian bezala elkarrizketatzaile bat egon ohi da. Elkarrizketatzaileak gidoi ireki eta malgu bat du, baina, halere bere presentzia beharrezkoa izaten da. Kasu honetan Euskaraldiko testigantzetan ez dago elkarrizketatzaile baten presentziarik, testigantzak norbere kabuz burutuak dira eta zentzu horretan inolako derrigortasun sentimendu barik izkiriaturakoak. Dena den, elkarrizketatzaile baten presentziak dakarren zilegitasun dosi falta eduki dezakete testigantzok, jendeak, kasu honetan ahobiziek, internet bidezko testigantzak direnez gero anonimotasunetik burutuak izateko arriskua daukatelako.

Halere, berme absolutuaren iturri ez badira ere aipatu testigantzok, uste da aberasgarriak eta emankorrak izan daitezkeela beraietan kontaktzen direnak arakatzea. Batez ere, ahobiziei ahotsa eman eta beraien iritziei usaia hartzeko bada ere. Ondoren aztertuko diren testigantzak eduki testu lez ikertuko dira. Testigantzen arteko sinergiak nahiz ikuspuntu esanguratsuak seinalatzea izango da zeregin nagusia.

### **3.2.1. Ahobizien testigantzak**

Euskaraldiaren web gunean idatzitako testigantzak 222 zenbatu dira gutxi gorabehera. Izan ere, testigantzok izen batekin, herriarekin eta rol motarekin ahobizi edo belarriprest moduan sinatu dira. Hartara, batzuetan herri bateko eta izen bereko bi-hiru testigantza ezberdin daude, pertsona berarenak izan daitezkeenak edo ez. Baina, tira, testigantzok portzentai majo batean zuzenak izango direla uste da eta, hala, oso baliagarri izan daitekeen informazioa jasoko da berauen eskutik.

Bada, 222 testigantzen artetik 190 dira ahobiziak idatzitakoak. Lehenetsiko direnak ahobizienak izango dira orain arteko ildoari jarraikiz. Euskaraldiaren web gunean, hala, 190 ahobizik idatzi dute bere iritzi eta sentipen propioen berri emateko.

190 testigantza horietatik 122 bizipen emakumeek idatzi dute eta 68 gizonek. Emakumeek testigantzen bi heren idatzi dute, %64 gutxi gora-behera. Euskaraldian ere, oro har, emakumeek parte hartze handiagoa izan dutenez testigantzen genero ezberdintasuna ere logika horretan ulertu daiteke, beraz. Aurreko atalean aitatu da, era berean, herri mailako ahobizi tasarik altuenak landa guneko herri txikietan eman direla: batez ere, Gipuzkoan (Baliarrain), baina, baita Nafarroa Garaian (Larraun), Ipar Euskal Herrian (Gamarte), Bizkaian (Aulesti) edo Araban (Zalduondo).

Testigantzei dagokionez, ordea, gehienak hiriburuetakoa dira, Bilbo nabarmentzen da guztien buru. Bilbotik 43 testigantza, Donostiatik 18, Gasteiztik 13 eta Iruñetik 11. Ipar Euskal Herriko hiru hiriburuetako inork ez du deus aipatu Euskaraldiaren web gunean. Izan ere, Ipar Euskal Herriatik 4 testigantza baino ez dira jaso: Hazparnetik, Senperetik, Itsasutik eta Mugerretik., hain zuzen.

Gainontzean, bitarteko herrietatik idatzi dira testigantzen ondorengo kopuru esanguratsuena, batez ere, Gipuzkoako bitarteko herrietatik: Hondarribia (5), Irun (4) Lasarte-Oria (4) edo Errenteria (4). Herri txiki eta landa gunetatik banan-banako testigantzak baino ez dira plazaratu, ahobiziak indartsuen agertu diren herrietatik komentatzeko gutxi izan dute, antza. Alderaketa horretatik ondorio nagusi bat atera daiteke inolako analisi sakonetan zipriztindu barik: biztanle kopuru handiko eremuetatik (eta, akaso, inguru ez hain euskaldunetatik) idatzi direla istorio gehienak, hau da, ahobizi tasa baxu xamarreko eremuetatik.

Testigantzak nondik idatzi diren adierazteaz gain, garrantzitsua da testigantzok zein jardun gune edo funtzio islatzen duten aztertzea, ahobiziek idatzitakoen artean Fishmanek aitatzen duen arrisku mailetakoa zein esparru edo jardun gune agertzen diren arakatzea. Testigantzak behin eta berriz irakurri ahala zenbait jardun gune bereizi dira nabarmen besteen gainetik: administrazioa batetik, gero lan esparrua, eta, azkenik, etxeko, lagun arteko, saltokietako zein kaleko giroa. Azkeneko lauak dira, beren-beregi, Fishmanek ezinbesteko jardun gune jotzen dituenak hizkuntza baten bizitasuna mantentzeko eta, bide batez, hizkuntza indarberritzeko: 6. arrisku maila.



Etxe edo famili giroa, lagun artea, kalekoa eta saltokietako gora behereak dira Fishmanek 6. arrisku mailan zedarritzen dituen interakzio gune eta funtzioak. Fishmanen BAEN zerrendaren arabera beste bi esparruak administrazioa eta lana, testigantzetan antzeman diren beste bi jardun guneak, bigarren eta hirugarren mailakoak dira hurrenez hurren. Arrisku maila ez hain handikoak, beraz. Gogoratu Fishmanen BAEN zerrendatik 8. maila dela hizkuntza baten galbidean alarma gorrikeri behinena eta, bestalde, lehenengo maila dela arrisku txikiena irudikatzen duena. Horregatik, lanari buruzko testigantzak eta administrazioari buruzkoak beste une baterako albo batean utzi eta BAEN zerrendako 6. arrisku mailako jardun guneetan jarriko da arreta: etxean, lagun artean, kalean zein saltoki edo tabernetan; 6. mailako jardun guneak baitira hizkuntza baten erabilera bizia erakusten dutenak.

Ondorengo jardunean aztertuko diren ahobizien testigantzak bi kontzeptutan banatuko dira.

Lehenengo kontzeptua bizipenei buruzkoa da non nagusiki ahobiziek Euskaraldian bizitakoa aztertuko den. Bigarren kontzeptua balorazioari dagokio, ahobiziek Euskaraldiari buruz egindako balorazioari, hain zuzen. Lehenengo kontzeptuari dagokionez helburua da hizkuntzaren erabileraren bizitasun adierazgarri den eremuan, eguneroko bizimodu arruntean, alegia; ahobizien bizipenak zelakoak diren aztertzea.

Bigarren kontzeptuarekin, aldiz, ahobiziek beraiek testigantzetan Euskaraldiaz egiten duten balorazioa aztertuko da. Testigantzak idatzi dituzten ahobizientzat Euskaraldiaren alde onak eta txarrak zeintzuk diren antzemateko asmoz. Bi kontzepturen araberrako azterketa lerro bi, beraz: bizipenak eta balorazioak.

### **3.2.1.1. I Kontzeptua: Ahobizien bizipenak**

Familia giroaz, lagun artekoaz, auzo edo kale giroaz nahiz denda eta tabernetako giroaz kontatu diren bizipenak aztertuko dira hurrengo lerroetan.

Jakin gura da esparru eta bizi funtzio horietan (BAEN 6. mailan) ahobizi lez parte hartutakoek Euskaraldia ospatu den 11 egunetan zein bizipen eta zein gora behera izan dituzten, zein pasadizo. Bizipenei buruzko atal hau lau dimentsiotan banatuko da, beraz: etxe giroa, lagun giroa, kale giroa eta saltoki zein taberna giroa. Bidenabar, lau dimentsiootan murgiltzean rola aldagaia trabeska gurutzatzea komenigarria irizten da. Izan ere, ahobizien bizipenetan jasotako elkarrizketek esanahi ezberdina eduki dezakete, ahobizi & hitzun oso (AB-BA) edo ahobizi & hitzun hartzaile (B, kulturizatu) arabera elkarrizketak izatean.

Izan ere, Xabi Payak esan bezala hitzun naturalizatu gabeen grina, hitzun kulturizatuena, alegia; gailendu egiten zaio askotan hitzun primarioen jardunari eta hitzun osoak daraman inertziari. Horrez gain, testigantzen jatorriari ere erreparatuko zaio, aurreko ataleko ahobizien portzentaiak oinarri hartuta. Trabes eran bi aldagai gurutzatuko dira, hartara: ahobiziaren jatorria eta ahobiziaren elkarrizketa rola.

Ahobizien bizipenen artean 190 biziipenetatik BAEN zerrendako 6. arrisku mailari erreferentzia egiten diotenak 87 bat inguru zenbatu dira gutxi gora behera. 87 bizipen horietatik 26 familiaz ari dira, 19 lagun arteaz, 16 kale giroaz eta 26 saltoki edo taberna giroaz. Lagin ale horietatik bihurritu da ondoren datorren informazioa. Dena dela, lagin txikiagoa ekarri da mahai gainera, esanguratsuenak begitandu direnak.

### **3.2.1.1.1. Ahobizien bizipenak etxe edo famili giroan**

Euskaraldiaren web gunean ahobiziek idatzitako bizipen nahikotxok aitatu dute etxe giroko edo familia inguruko pasadizoren bat. Behin baino gehiagotan aipatua izan da erronka nagusia etxean izan dutela, bai bikotekidearekin, bai gurasoekin, seme-alabekin eta abar. Maiz aipatu da ere aldatzeko hizkuntza ohiturarik zailenak etxe barrukoak izan ohi direla. Bada, testigantzak irakurtzen joan ahala hiru norabideko bizipenak bereizi dira, hiru kategoria. Batetik, seme alabei begirakoak, bestetik, bikotekideari begirakoak eta, hirugarrenik, gurasoei begirakoak.

Hiru kategori hauen sailkapena eginda, harreman mota horietan eman diren interferentzi nagusiak bilatuko dira hurrena. Esate baterako, seme alabengan sortutako kontzientziaz pozik ageri dira guraso bat baino gehiago. Nahiz eta seme alabak txikiak izan eta Euskaraldian parte hartzerik izan ez, gurasoek bizipenetan kontatu dute seme alabengan sumatu dutela euskararekiko ardurarik. Adibidez, Ibarako Ikerrek bere etxean alabekin bizitako esperientziaz zera dio:

*“Baita ere, azpimarratu nahiko nuke ekimen honek nere alabengan izan duen eragina. Markaje zuzena egin didate eta oso zorrotzak izan dira nere konpromisoa bete nezan saiatuz”.* **Iker (Ibarra)** Ahobizi

Ikerrez gain, Leioako Jokinek, edota Bilboko Itziarrek zein Gotzone-k ere seme alaben euskararen erabilerari buruzko testigantzak idatzi dituzte. Leioako Jokinek, esaterako, Euskaraldiak alabengan izaniko eragina etxetik asagokoa dela dio:

*“Nire emazteak euskera ez jakiteak eragin handia du nire egunerokotasunean eta nire alabeek berarekin erderaz hitz egin behar dutenez nahiko erabiltzen dute erderaz. Euskaraldian parte hartu ondoren biak hasi dira euskara gehiago erabiltzen eta ez bakarrik nirekin. Haien lagunekin euskaraz hitz egiten hasi dira”.* **Jokin (Leioa)** Ahobizi

Bestalde, Jokinen testigantza nola, bikotekidearekin izandako erronkaz mintzatu direnak bat baino gehiago izan dira. Kasu honetan komeni da bikoteen rolaren araberako bereizketa egitea. Izan ere, bizipenak idatzi dituzten batzuen bikotekideak ere hiztun osoak (izateko nahia adierazi ez dutenak, baina hiztun osoak direnak) izan daitezke edo Jokinen emaztea moduan belarriprest-ak (hau da, hiztun hartzaileak, kulturizatuak. Belarriprest rola profil horren parekide lez ulertu baitu jendeak).

Hartara, balizko ahobizi eta hiztun osoen arteko harremana Txepetxen gune sinbolikoaren barruan kokatuko litzateke eta ahobizi eta belarripresten artekoa, berriz, hanka bat, bederen, gune sinbolikotik kanpo.

Hala, hiztun osoek osatutako bikote harremanean (ahobizi & hiztun oso) edo familian eguneroko kontuetan hizkuntza gutxitua dena bazterten hasten bada, hizkuntza gutxitu hori zaurgarritasun maila handiagora igarotzen da.

Halere, euskaraz bizitzeko hautuan usu gertatzen da belarriprest profila lako pertsonak gogo eta motibazio handiagoa erakustea (belarripresten rola hiztun hartzailearen parekide jo da gehienek hala ulertu dutelako), euskararen gune sinbolikoa ordezkatzeko duten zenbait hiztun osoek baino, eta zer esanik ez hiztun primarioek baino, arrazoa dena delakoa izanik ere. Hala eta guztiz ere, argi dago egunerokotasunean euskaraz bizitzeko orduan hiztun osoek gaitasun handiagoa dutela berez hiztun hartzaileek baino eta, hori dela eta, izan dezaketen erdararako joera iraultzea ezinbestekoa begitantzen da.

Edozelan ere, hiztun hartzaileen motibazioa eta komunikatzeko gaitasuna elikatzen jarraitu behar den moduan, hiztun osoen barrunbeak sakon aztertu beharrekoak dira, hizkuntza gutxitu baten indarberitzean ezinbestekoak direlako. Kontuak kontu, eta adarretatik joan orduko, Euskaraldiaren web gunean testigantzak idatzi dituztenen artean badirudi ahobizi eta hiztun osoen bikoteen arteko hizkuntza ohiturak euskarara hurreratzeko inertzia astunagoak daudela, ahobizi eta belarriprest bikoteen aldean.

Hala dirudi, bederen, bateko eta besteko aldartea alderatuz gero. Esaterako, Mungia-ko Agurtzanek zera dio:

*“Bestalde, amorratuta nago neure buruarekin, zenbat erdal esaera sartzen dudan konturatuta. Eta ezin ahaztu senar erdi ahobizi dudan harremana. Zorionez, euskarari eusten diogu oraingoz. Argi dagoena lan handia dudala ohiturak aldatzen.”* **Agurtzane (Mungia) Ahobizi**

Agurtzaneren bizipenaz gain, Eibarko Gorkak ere zailtasun antzekoei egiten die erreferentzia. Zera diosku Gorkak: *“Etxean bikotearekin txipa aldatzea izan da zailena baina lortu dugu maila handi batetan.”* **Gorka (Eibar) Ahobizi.**

Ahobizi eta belarriprest bikoteen arteko gora behereak kontatzean, bestalde, tonu baikorragoa edo aldarte bozkariotsuagoa ageri dela dirudi. Zailtasunen aipamena, behintzat, ez dago hain presente. Esate baterako, Lekeitioko Julianen eta Bilboko Koldobikaren bizipenak aitatutako ildoan koka daitezke. Julian eta Koldobika, hurrenez hurren:

*“Nire emazteak belarri prest rolla hartu zuen, baina gure artean azken 42 urtetan gaztelaniaz aritu izan gera, eta eskerrak kanpaina honeri egoerari buelta eman diogu eta orain gehienetan euskaraz aritzen gara.”* **Julian (Lekeitio)** Ahobizi

*“Mintza praktika berri hau nire emaztearekin komunikatzeko era berri bat azaldu dit, orainarte sekula ez diot Euskaraz egin, eta Euskaraldi honetan %70 baten baino gehiagotan Euskaraz soilik dihartut. (Berak niri ezer esan gabe #Belarriprest txaparekin agertu zitzaidan eta ...).”* **Koldobika (Bilbo)** Ahobizi

Bikote harremanetan bistaratu ez den jarrera kontraesankorragoa nabari da seme alaben gurasoekiko hartu emanean, batez ere, guraso belarriprestekiko. Seme alaba ahobizien bizipenek guraso belarriprestekiko tratuan ezintasunak argiago aipatu dituzte. Esaterako, Hazparneko Joanak zera dio: *“Bainan ezinezkoa zait Amarekin euskaraz egitea, nahiz eta belarriprest gisa eman duen izena.”* **Joana (Haparne)** Ahobizi

Edota, Hondarribiko Anek ondorengoa aipatzen duenean antzeko nekea islatzen du:

*“Etxean, gehiago kostatu zait ohiturak aldatzea. Azkenean, egun osoko nekeak gainean ditudala, errazenera jotzeko tentazioa bertan izan dut, etxeko guztiek ez baitute euskara guztiz "dominatzen", eta batzuetan ezin uko egin tentazioari.(...) Eta, aldi berean, poztasun asko eman dit ama euskeraz hitz egiten ikusteak, aspalditik ez zuelako saiakerarik egiten ”* **Ane (Hondarribi)** Ahobizi

Sumatu daiteke bikote belarriprestekiko harremanetan eta seme alabek guraso belarriprestekiko duten harremanetan ageri aldarte ezberdinak, bestelako aldagai batzuen ondorio direla, seme alabek gurasoekin jarrera gatazkatsuagoa erakustea ohikoagoa izatea, kasu. Dena dela, guraso belarriprest-ekiko jarrera baikorragoko bizipenak ere antzeman dira, Durangoko Xabierrena, adibidez:

*“Azkenik, nire etxean euskaraz mintzatzen naiz arreba eta amarekin. Euskaraldia baino lehen, aitarekin espainolez mintatzen nintzen. Euskaraldia hasi zenean bera belarriprest izan zen eta ni euskaraz zuzenduko nitzaiola adostu genuen. Berak euskara eta espainola tartekatzen ditu nirekin hitz egiterakoan, euskaraz dakien arren zailtasunak dituelako gauza batzuk adierazteko. Horietan espainolez zuzentzen da nigana.”* **Xabi (Durango)** ahobizi

Hiztun oso diren gurasoekiko bizipenetan seme alaba ahobiziak zuhurrago agertu dira, akaso, guraso belarriprestekiko baino. Ez hain giro ezkorrean, bederen. Edozelan ere, ahobizi eta hiztun osoen arteko garrantzia berriz mahai gaineratuz, Donostiako Mattinek idatzi bizipen honek jorratu beharreko norabidea zein den erakusten du. Batez ere, ahobizien eta hiztun osoen artean hizkuntza ohiturak euskarara lerratzeko orduan: *“Euskaraldia hasi ta sentitu nuen lehen aldaketa nagusia gurasoekin aspaldiko partez euskaraz aritu ahal izatea izan zen, ta ez da gutxi”* **Mattin (Donostia)** Ahobizi.

Horrez gain, gurasoekiko harremana izan ez arren, amaginarrebari erreferentzia egiten dion Atarrabiako Rosaren bizipena zinez da azpimarragarria. Batik bat, belarripresten integrazioa gutxietsi barik, hiztun osoen euskaratzearen adibide argia delako:

*“Oso anekdota polita izan dut senarraren amarekin. Nahiz eta bera euskaldunzaharra izan, beti lotsatzen zen euskaraz, bere ustez, gaizki hitz egiteagatik. Hala ere, oso euskara polita du, Nafarroako Aralar ibarrakoa, eta izugarri ongi egiten du. Lehen beti erderaz egiten zuen guztiezkina. Orain, euskaraldia dela eta, beti egiten du euskaraz nirekin eta bere senarrarekin.”*

*Espero dugu hemendik aurrera beste euskaldunenekin ere euskaraz aritzea.” Rosa (Atarrabia) Ahobizi*

Atarrabiako Rosaren amaginarrebak irudikatzen du ondoen Euskaraldiak, Txepetxek eta Fishmanek euskararen indarberritzeari esleitutako zeregin nagusietako bat: ahobizi eta hiztun osoen arteko elkarrizketak euskarara aldatzea.

Eukaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzea izan du helburu, Txepetxek hiztun osoen sustraitzean, ahobiziengan jarri du arreta nagusia, eta Fishmanek BAEN zerrendatik 6. arrisku maila du, hots, familia, lagun arte eta eguneroko bizimoduko gora-behereak, oro har, hizkuntza bat indarberritzeko jardun gune edo bizi funtzio garrantzitsuentzat. Rosaren amaginarrebak hiruak ukitzen ditu, alde batetik besterako zehar lerro batez.

Gainera, Rosak aipatzen du bere amaginarreba senarrarekin ere euskaraz mintzatzera pasa dela eta, beraz, bikote harremanetan, lehentxeago ahobizi eta hiztun osoen artekoetan ezkortasuna eta zailtasuna nabarmendu bada ere, Rosaren amaginarrebak erakusten du posible dela hizkuntza ohiturak euskarara arrimatzea bikotean ere. Eibarko Gorkak esaten duen moduan txipa aldatzean datza gakoa. Zelan eragin, ordea, txip aldatzea egiturazkoa izan dadin?

Ikusi da, edozelan ere, familian posible dela hizkuntza ohiturak aldatzea, bai familia euskaldunetan eta baita familia ez hain euskaldunetan ere. Erakutsi diren aipuak horren lekuko; Bilboko Koldobikak eta Atarrabiako Rosak demostratu bezala.

### **3.2.1.1.2. Ahobizien bizipenak lagun artean**

Lagun giroaz ahobiziek idatzitako bizipenetan ere “kuadrilla” berbak behar zuen bere lekua. Izan ere, ahobizien bizipen askotan aitatu da kuadrillan izan duten erronkez hau edo beste. Lagun giroa, batik bat, talde kopuru majoan azalerratu da bizipenetan. Lagun batekin zehazki izandako bizipenak barik, lagun talde handiagoko bizipenak nagusitu dira nabarmen.

Lagun arteko bizipenetan denetariko kontuak jaso dira: belarriprest lagunen keinuak txalotu dituztenak, ahobiziz eta hiztun osoz jositako lagun artearen ahalegina goraiatu dutenak, watsapp taldean euskaraz idaztearen garrantzia aipatu dutenak eta abar. Esaterako, Bilboko Maialenek belarriprest izan den kide baten eragina azpimarratu du bere kontakizunean:

*“Nire kuadrillako danak euskeraz jakin arren, inoiz ez dogu euskeraz hitz egiten. 11 eguneko esperientzia honetan jaso zaidan gauza politena, kuadrillako Belarriprest izan dan batek, kuadrilla dana euskeraz hitz egiten jartzea izan da. Nahiz eta beste batzuk erreztasun gehiago izan, edo gure egunerokotasunean sarriago erabili, berea izan da lehen pausoa eman dabena”.* **Maialen (Bilbo)** Ahobizi

Baina, akaso, bikote harremanetan ez bezala, lagun artean ahobizi zein hiztun osoen arteko hizkuntza aldaketen ahaleginean baikortasun gehixeago antzeman da. Sikiera, zailtasunak ez dira horrenbeste gailendu. Adibidez, Arrasatetik Jasonek esandakoa esanguratsua da:

*“Lehenik eta behin esan behar dut nire egunerokotasuna euskaraz bizi dudala, batez ere, nire lan esparrua euskaraz oinarritzen delako eta, akaso, honegatik, erraz eta beti, nire lehen hitza euskaraz da. Baina Euskaraldian banuen nire erronka eta ez nola nahikoa, nire betiko kuadrila. Asteburuari urduritasunez ekin nion eta aitortu behar dut, etxetik kalerako bidean, hamaika buelta eman nizkiola buruari lagun arteko eguneroko elkarrizketa arruntari nola eta norekin ekin irudikatzeko.*

*Eta heldu nitzen gure ohiko topalekura eta ekin nion, natural natural ekin ere, nire harridurarako. Arratsaldea pasa genuen, betiko moduan, gai anitzetan murgilduta... Ez, betiko moduan ez, elebiko elkarrizketa aberatsetan murgilduta esan nahi nuen. Inork ez zuen Euskaraldia aipatu ere egin, Euskaraldian sartu ginen iskanbilarik gabe, goxo-goxo eta denak konplize bihurtu ginen, konplexurik gabe. Itzela sentitu nuena!!!”* **Jason (Arrasate)** Ahobizi



Jasoneren bizipena adierazgarria da, zeren, Arrasate bezalako herri euskaldun xamar batean (%15,7 ahobizi) hizkuntza aldaketa jazo dela jakitea aipagarria da. Hala, azpimarratzekoa da inguru erdaldunagoetan euskaraz bizitzeari ekitea nola, inguru euskaldunagoetan ahobizi eta hiztun osoz osatutako lagun taldea erdararako joeratik euskarara lerratzea bera; hizkuntza ohitura aldaketak bi norabideotan gertatzea izan da Euskaraldiaren zeregina eta, ahobizien akuilu lanarekin beti ere.

Jasoneren antzeko lldotik dihardute, besteak beste, Donostiako Mattinek: *“Lagunen artean izan da ordea(denok ahobizi) alde nabarmenena sentitu dudana.”* **Mattin (Donostia)** Ahobizi. Zizur Nagusiko Estitxuk: *“Txikitatik gaztelania erabiltzen nuen lagun askorekin euskaraz hitz egiten hasi naiz!”* **Estitxu (Zizur Nagusia)** Ahobizi.

Arrasate inguru euskaldun xamarra dela aitatu den moduan, aipatzekoa da Zizur Nagusiko Estitxuk iragarritako hizkuntza aldaketaren garrantzia, Zizur Nagusia erdaldunagoa denez (%1,16 ahobizi) hiztun osoek zailago dutelako euskararen erabilera garatzea.

Urretxuko Leire pozik ageri da, era berean: *“Inguruko lagun eta ezagunak euskaraz aritzen ikusteak (egunerokoan orokorrean asko egiten ez dutenak) benetan poztu nau.”* **Leire (Urretxu)** Ahobizi. Edota, ertz ugari ukitzen dituen eta esan nahi asko duen Altzako Zigorren bizipena ere aintzat hartzekoa da:

*“Koadrilan galdua genuen tentsio lingusitikoa. Lagun gehienak euskara ikasiak dira, eta gaitasun maila ezberdinak dituzte. Urtetan euskara izan da nagusi (ez erabateko) gure koadrilan, eta nire rola (hein bateko) ahozbizia izan da. Baina denboraren poderioz, gaztelaniara jotzen joan gara. Nire eragin ahalmena ere ahultzen joan da, eta neuk euskaraz egin arren, elkarrizketa kolektiboak gaztelaniara jo izan du maiz.*

*Herenegun, ordea, bazkari batean bildu ginen gehienok, eta zerbait aldatu dela esan dezaket. Koadrilako elkarrizketa kolektiboa nagusiki euskaraz izan da berriz. Ederki saiatu ziren gaitasun apalena dutenak ere. Jarrai dezala!”* **Zigor (Altza, Donostia)** Ahobizi

Aitzitik, bada kuadrilla handi edo lagun taldeetatik asago, banan banako lagunei erreferentzia egiten dieten bizipenak, ez dira ugarienak izan. Hondarribiko Lola edo Arrigorriagako Karmelorena, kasu: *“Kuadrillako lagunarekin 40 urtetako harremana, orain artean erdara hutsean. Atzo #Ahobizi eta #Belarriprest aritu ginen, arazorik gabe”*  
**Karmelo (Arrigorriaga) Ahobizi**

### 3.2.1.1.3. Ahobizien bizipenak kale giroan

Kale giroan, orokorrean, giro positiboa nabaritu dutela azpimarratu dute ahobiziek beraien bizipenetan. Zentzu horretan azpimarratu dute kalean txapadun asko ikusi dituztela eta uste zutena baino jende gehiagok dakiela euskaraz. Batez ere, Iruñetik idatzi diren bizipenak dira, esaterako, kale giroaz baikorren berba egin dutenak. Maiterenak edo Amayarenak bezala:

*“Gaur hirugarren eguna da. Kalera atera eta nere koinatarekin topo egin eta euskaraz egin dut. Berak dena ulertzen du baina erdaraz egin izan dugu beti.*

*Gero nire etxe ondoko plazan maíz ikusten dudan ezagun batekin ere euskaraz. Biok euskaldunak gara baina gauza bera, beti erderaz. Horregatik oso pozik nago ikusi dudalako konpromezu honek laguntzen ahal duela ohiturak aldatzen edo behintzat zirikatzen. **Maite (Iruñea) Ahobizi**”*

*“Kanpainan harrituta geratu naiz, zentzu onean, espero baino jende gehiago aurkitu bainuen kalean txapa hori soinean zeramala. Neuk gehiago hitz egin dut euskaraz, eta aldi berean, jende gehiagok hitz egin dit euskaraz ere bai.” **Amaya (Iruñea) Ahobizi***

Iruñeko bizipenetan antzeman daiteke, halaber, bi elkarrizketa mota izan dituztela: elkarrizketa elebidunak (ahobizi & belarriprest) eta euskarazko elkarrizketak (ahobizi & hiztun oso). Maiteren kontakizunean, esaterako, koinatarekin elkarrizketa elebiduna eta ezagun batekin euskarazko elkarrizketa eduki izana aipatu du. Ildo berean Aramako Asierren kontakizuna ere interesgarria da:

*“Bulegora iritsi eta kanpoan gure bizilaguna, (belarriprest bera) eta gure lokal jabea (euskaldunberria, baina txaparik gabe) hizketan topatu nituen. Biekin beti euskaraz egiten dut, eta beraien elkarrizketara batu nintzen. Erdaraz ari ziren biak. Ni, noski, euskaraz. Eta lokal jabeak euskaraz erantzun dit. Belarripresta harrituta, ez omen zekien euskalduna zela. Hortik aurrerako guzti-guztia euskaraz egin genuen, eta joan nintzenean hor utzi nituen biak euskaraz hitz egiten euren artean.”* **Asier (Arama) Ahobizi**

Aldi berean, beste inguru batzuetatik ere kale giro ona nabarmendu gura izan dute. Adibidez, Donostiako Aitziberrek honakoa dio: *“Auzoan sekulan agur besterik ez esaten ez digun pare bat pertsonarekin aritu ginen solasean.”* **Aitziber (Donostia) Ahobizi.** Eta Donostiako beste bizipen batekin bat eginez, badirudi Euskaraldiak harreman berriak egiteko ere balio izan duela: *“Kalean berriz, alaitasunez harreman berriak egiten lagundu nau eta oso ekintza aberasgarria eta sana iruditu zait.”* **Marijose (Donostia) Ahobizi.**

Donostiatik bertatik Mattinek, anartean, Aitziberren antzeko sententzia du: *“Bestalde, kalera irtetean erdaraz erlazuonatu ohi nintzen zenbaitekin(dendariak e.a) euskaraz ere erlazona naitekela berrikusi dut.”* **Mattin (Donostia) Ahobizi.** Halere, izan da Euskaraldiak iraun duen egunetan zehar kalean giro berezirik aurkitu ez duen edo txapa gutxi ikusi duen jenderik. Irundik Estherrek dioena, kasu: *“Hala ere oso txapa gutxi ikusi ditut, beraz txapek ez didate espero nuen babes eskaini, agian negua da eta berokien azpian izkutatuta egon dira.”* **Esther (Irun) Ahobizi.**

Kale giroko bizipen gehienek, edozelan ere, eskertu dute Euskaraldiaren babes.

#### **3.2.1.1.4. Ahobizien bizipenak saltoki eta tabernetan**

Zerbitzu sektoreko adarrak izan arren, hein handi batean jite total ezberdina duten bi establezimendu mota dira saltokiak (txikiak, handiak) eta tabernak. Saltokiak tabernen aldean esan daiteke eremu formalagoa osatzen dutela.

Tabernak jaia eta aisialdiarekin lotzen dira eta saltokiak aisialditik zerbait izan dezaketen arren, jaitik ezer gutxi dute. Saltokiek beharizan oinarrizkoagoak asetzeko zeregina dute: janaria, esate baterako. Hainbatek eta hainbatek dendetan zein tabernetan elkarrizketa elebidunak mantendu izana azpimarratu dute. Izan ere, kontuan hartu behar da aipatu denda eta tabernak egunerokoan ohikoak diren interakzio guneak direla. Maiz egiten du batek erosketa denda berdinean eta maiz hartzen du batek kafea taberna berdinean. Hala, orain arte tabernaria edo saltzailearekin erdaraz mantendu izan dituzten elkarrizketak euskaraz garatu ahal izateak bat baino gehiago poztu du.

Bizipen horien laginetako bat da, esaterako, Bilboko Nerearen hau: *“Nire lehen elkarrizketa elebiduna izan dut. Kafetegian euskaraz hitz egin diot tabernariari eta berak gazteleraz erantzun dit. Guztia egin ahal izan dut euskaraz.”* **Nerea (Bilbo) Ahobizi**. Bilbon jarraituta, Mirenek elkarrizketaren pasartea deskribatu du: *“Ogidendan euskaraz eskatu eta erantzuna: - dos euros cincuenta, mesedez.* **Miren (Bilbo) Ahobizi**.

Badirudi Bilbo aldean saltokietan euskaraz egin ahal izanak nolabaiteko poztasuna sortu duela ahobiziengan, hori nabari da, behintzat, beraien bizipenetan; ezen, Bilbon euskaraz aritu daitekeen saltokiak bereizteko balio izan dio Euskaraldiak Tomasi:

*“Bilboko dendetan sumatu dut saltzaileak, nahiz eta euskaraz ez jakin edo gutxi jakin, prestago zeudela euskara entzutera edo zenbait erantzun euskeraz ematera. Normalizatzeko joeratxo esango nuke..Indautxun ere zenbait dendetan badakit hemendik aurrera euskara erabili ahal dudala.”* **Tomas (Bilbo) Ahobizi**

Elkarrizketa elebidunak ez eze, erdaraz egin izan diren tokietan elkarrizketa euskaraz burutu dezaketela kargutu dira baten batzuk.

Bilboko saltokietan sartu irtenean jarraituz, Iruñeko kale giroan nola, nabari da Euskaraldiak ekarritako baikortasuna Bizkaiko hiriburuan. Egiaz, Bilbon saltokietan elkarrizketa elebidunak eduki izana azpimarratu den eran, bizipenen batean edo bestean azpimarratu da euskarazko elkarrizketa garatzearen satisfazioa. Iratxeren kasua aipatutakoaren adierazle:

*“Supermerkatuan, ordaintzeko lerroan nengoela kutxazainak ahobizi txapa ipinita zeukala ikusi nuen. Neure txanda iristear zegoela, keinua egin zidan "eh, nik ere daramat txapa!". Euskaraz kobratzear zihoala, zera esan zidan: "Hamar euro eta hogeitxentimo... ala xentimoak? Nola esaten da?" Euskaldun berria eta ahobizi!! Ia-ia hunkitu ere egin ninduen, "zurea bai meritua" esan nion.”* **Iratxe (Bilbo)** Ahobizi.

Bilbotik harago Portugaleteko Aitorren edo Gasteizko Almudenaren kasuak ere badira baikortasunaren adibide:

*“Botika batean izan zen. Ez naiz sarri joaten bertara, etxetik hurbil beste bat dudalako, baina azkenaldian bertara joatea tokatu zait. Bertara sartu, eta bertako nagusiak nire txapa ikusi eta berehalaxe deitu die barruan zeuden beste bi langileri. Hauek txaparekin agertu dira. Hasi gara hizketan, eta botikan zegoen gainontzeko jendea adi egon da.”* **Aitor (Portugalete)** Ahobizi

*“Gasteizen pensatzen nuen baino jende euskaldun gehiago dagoela konturatu naiz, esatebaterako farmazia batean sartu euskaraz eskatu eta farmazioakoak euskaraz erantzun, gastelaniaz beti egin dudana tuki batean, hau poza!!!”* **Almudena (Gasteiz)** Ahobizi

Bazterretan, baina, izanda kontrako bizipenik izan duenik. Bilbon bertan baikortasuna nagusi izan dela azpimarratu bada ere, Victoriak osterantzeko irakurketa egiten du: *“Zaila izaten da, beti euskaraz hasi naiz baina erosketetan gutxi aurkitu ditut euskaraz hitz egiteko prest.”* **Victoria (Bilbo)** Ahobizi.

Kontuak kontu Gasteizko Nereak ondo laburbiltzen du euskararekin maiz gertatzen diren kontuak saltokietan zein beste esparru batzuetan.

Bere erronketako bat zera izan da: *“Saltoki, jatetxe eta abarretan lehen hitza euskaraz egitea eta euskaraz dakitenak lehenestea. Hau da gogorrena niretzat, batzuetan erantzun txarrak etab. izaten direlako.”* **Nerea (Gasteiz)** Ahobizi.

Orokorrean, halere, saltoki eta tabernetan erantzun txarrak baino baikortasunezko bizipenak nabarmendu direla dirudi. Bi elkarrizketa motetan, gainera: elkarrizketa elebidunetan eta euskarazko elkarrizketetan.

### **3.2.1.2. II Kontzeptua: Ahobizien balorazioak**

Ahobiziek izan dituzten bizipenez gain, askok eta askok hausnartu dute bizi izandakoaz era betera edo bestera. Beraien iritzia plazaratu dute bizi izandakoa baloratzeko edo besterik barik Euskaraldiaz duten ustea adierazteko. Norbanakoaren egunerokoa zeharkatzen duten harreman mota eta jardun gune ezberdinetan (familia, lagun artea, kale edo auzo giroa, erosketak zein taberna) bizitakoa azaltzean, bueltan bueltan, Euskaraldiaren gaineko hausnarra egiteko baliatu dute testigantzak idaztera ausartu diren ahobiziek.

Hartara, testigantzak idatzi dituzten ahobizien artean Euskaraldiaz duten iritzia aletuko da hurrena. 45 testigantza inguruk egin dute gutxi gora behera Euskaraldiaren gaineko balorazioen bat. 45 balorazio horietatik lagin txikiagoa ekarriko da ondorengo lerrootara, esanguratsuenak begitandu direnak.

#### **3.2.1.2.1. Euskaraldiari buruzko ahobizien balorazioak**

Ez dira gutxi izan txapen inguruko gogoetak egin dituztenak, batzuentzat asko izan dira kalean gurutzatutakoak eta beste batzuentzat, agian, maila apalagoan, gutxi. Dena dela, Elgoibarko Juan Mari izan da galdera airera jaurti duena euskaraldiari buruzko hausnarrean. Akaso, ezkortasunetik gehiago baikortasunetik baino:

*“Ahalegina zuzena iruditzen zait, egokia. Gauza da, eguneroko euskalgintzaren gaur arteko dinamika arruntetan nola integratu dinamika berri hau: euskararen erabilera hobetu behar bada jendearen gogo eta inplikazioz izango da.*

*Eta nola sustatu egunerokoan jarrera hori kontutan hartuta kanpo baldintzak (prekarietatean bizi da asko eta asti gutxi dauka horrelako kontuetarako, laguntza asko behar du bere egoera hobetzeko, komunikazioaren munduan erdararen nagusitasuna,...).”*

**Juan Mari (Elgoibar)** Ahobizi

Juan Marik prekarietatearen eta erdararen pisua handiegiak direla irizten dio. Euskararen erabilera areagotzeko norbanakoaren motibazioa, hortaz, kanpo eragin zamatsuen pean dago bere ustez. Hondarribiko Jose Ramon ere nahikoa ezkor ageri da Euskaraldiaren arrakastaz eta txapen kontuaz: *“Nere inguruan, Hondarribian, nik espero nuen baino txapa gutxiago ikusi dut ”* **Jose Ramon (Hondarribia)** Ahobizi. Donostiako oihana ere ez da Euskaraldiaz bozkarioz mintzo:

*“Bestetik, Donostian txapa zeramaten jende gutxi ikusi dudala iruditu zait, horrekin pena hartu dut, hiri handia izanez, txapa pila bat ikusiko nituela pentsatzen bainuen. ”* **Oihana (Donostia)** Ahobizi.

Euskaraldiaren inguruan, oro har, txapen aferan bereziki aurreko hiru testigantzok izan dira aurkitutako ezkorrenak seguruenik. Bateren bat bidean galdu izana posible bada ere, txapen inguruan burutu hausnarketa gehienak baikorrak izan dira. Testigantzak idatzi dituzten ahobiziei babesgarri, ahalduntzerako mesedegarri eta talde izaera sendotzeko baliagarri iruditu zaie txapen kontua. Hiru irizpide horien baitan adierazi dute ahobiziek baikortasunaren nolakotasuna. Oiartzungo Aritzek, esaterako, normalean euskaraz bizi den arren, zerbait berezia igarri du Euskaraldiak iraun duen egunetan:

*“Nire kasuan ez da aldaketa handirik egon eta beti bezala euskaraz hitz egin dugu. Nabaritu dudana izan da euskaraldiak jendearengan izan duen eragina, euskaraz hitz egin eta entzuteko gogoia, bistakoa izan da.”* **Aritz (Oiartzun)** Ahobizi

Iruñetik Amayak eta Irunek Euskaraldiaren eragin positiboa azpimarratu dute:

*“Kanpainan harrituta geratu naiz, zentzu onean, espero baino jende gehiago aurkitu bainuen kalean txapa hori soinean zeramala.(...) Hain positiboa izan da kanpaina hau, amaitutakoan ez nuela batere gogorik txapa kentzeko. ”* **Amaya (Iruñea)** Ahobizi.

*“Egun hauetan zehar irakaslearen rola hartu egin dut, nire lagunei "euskaraz, mesedez" behin eta berriro esanez. Euskaraldiak aspalditik ezagutzen nuen jendea hobeto ezagutzeko aukera eman dit, haiek euskaraz ere bazekitela jakiteko baliabide bat izan delako.(...).*

*Lehen pixka bat korte ematen zidan horrek, orain botere moduko bat ematen didala uste dut. Boteretsua sentitzen naiz, harro. Prest nago datorren urtean bizipen hau errepikatzeko eta belarriprest rola hartzen dutenei haien euskara maila hobetzen laguntzeko.”* **Irene (Iruñea)** Ahobizi

Euskaraldiak eta txapa eramateak Donostiako Lolari berraktibazioa eta indartzea ekarri dio:

*“Pertsonalki, txapa eramateak eta jendea txaparekin ikusteak indarra eman dit eta ilusioa piztu. Eta are garrantzitsuago, euskaraz hitz egiteagatik justifikazioan erori beharra kendu dit hein haundi batean, justifikatu beharra zuena (izatekotan) parekoa izanik. **Lola (Donostia)** Ahobizi.*

Ormaiztegitik Iñakik eta Beasaindik Jon-ek zera diote, hurrenez hurren:

*“Ingurune nahiko euskaldunean bizi naiz. Neu ere ahal duen guztietan euskaraz hitz egiten duen horietakoa naiz. Alde horretatik, nire eguneroko jardunean kanpaina honek ez du aldaketarik ekarri. Baina kanpainak iraun duen tartean, sentimenduei dagokienez, nire kasuan behintzat, INDARTZE moduko bat nabaritu dut, TALDE BATEKO KIDE naizelako sentipen indartua; eta inguruan euskaldun ez direnei, edo gutxi erabiltzen dutenei, EUSKARA GURETZAT GARRANTZITSUA DA taldean esaten ari ginelako sentsazioa.”* **Iñaki (Ormaiztegi)** Ahobizi



*“Euskararen alde dagoen jarrera positiboa pribatutasunetik atera eta jendaurrean erakusteko balio izan du. Jendea gogo handiz gagoela somatu dut.” Jon (Beasain) Ahobizi*

Rubenek Bilbotik, berriz, konfiantza aipatzen du: *“Erantzuna ez da beti ona izan, baina txapak nonahi daudela jakiteak segurtasun- eta konfiantza-sarea hedatu du gizartean.” Ruben (Bilbo) Ahobizi.*

Aipatu lez txapen eraginari buruzko balorazioetan, talde izaera, segurtasuna, babesa, bezalako hitzak dira sarrien agertu direnak eta norabide bat erakutsarazten dutenak. Horrez gain, Rubenen haritik Joxek ere antzeko zerbait dio. Hau da. Euskaraldiak euskal hiztunak ezagutzeko eta, nolabait, komunitatea egiteko baliagarri izan dela:

*“Ahobizi rola izan dut eta erdalduntzat neukan hainbatekin euskaraz aritzeko aukera eman dit euskaraldiak. Eta jakina, hemendik aurrera euskaraz jardungo dudana jendea ezagutzeko bidea eman dit. Aurrerantzean "euskaraldia"n biziko naiz” Joxe (Bilbo) Ahobizi*

### 3.2.1.3. Ahobizien balorazioen ondorio nagusiak

#### a) Bizipenak

- **Familia: gurasoak seme alabekiko, bikoteak eta seme alabak gurasoekiko.**
- Ahobiziek idatzitako bizipenetan seme alaba gaztetxoak dituzten gurasoak pozik agertu dira seme alabek euskararekiko erakutsi duten kontzientziatzeagatik.
- Bikote kideen harremanetan ahobizi & hiztun oso bikoteen artean zailtasuna adierazi dute ahobiziek. Txipa aldatzea, erronkarik zailena eta tankerako berbak erabili dituzte egoera azaltzeko.
- Bikote harremanetan, non bestea belarripresta izan denean, bizipenen tonua baikorragoa izan da.

- Gurasoekiko harremanean seme alabek guraso belarriprest izan duten kasuetan, zenbait bizipenetan ezkortasuna igarri da. Gurasoa hitzun osoa izan denetan adierazpen baikorrakoak antzeman dira.

- **Lagun giroa**

- Lagun artean belarriprest-en aldarte egokia azpimarratu dute zenbaitzuek.
- Ahobizi & hitzun osoen arteko elkarrizketetan ere pozik agertu dira bat baino gehiago. Bai inguru euskaldunekoak eta bai inguru ez hain euskaldunekoak.
- Ikertu diren bizipen gehienak lagun arte zabalekoak izan dira. Banakako lagunarekin izandako bizipenak dezente gutxiago, bestalde.

- **Kale giroa**

- Kale giro ona orokorrean. Ahobiziek beraien bizipenetan adierazi dute uste baino jende gehiagok dakiela euskaraz.
- Elkarrizketa elebidunak eta euskarazko elkarrizketak antzera eman dira kale giroan ahobizien bizipenen arabera.

- **Saltoki eta taberna giroa**

- Euskaraz jarduteko saltoki eta taberna identifikatzeko balio izan du Euskaraldiak.
- Identifikazio horietan elkarrizketa elebidunak garatzeko zein euskarazko elkarrizketak mantentzeko saltoki eta tabernak aurkitu dituzte ahobiziek.
- Orokorrean, saltoki zein tabernetan aldaketa positiboa nabaritu da.

## **b) Balorazioak**

- **Euskaraldiari buruz**

- Euskaraldiaren inguruan 3 bat balorazio antzeman dira ezkor xamarrak, beste guztiek Euskaraldiaren eta txapen eragina positiboki baloratu dute.

- Eta balorazio positibo horien artean txapa eramateak testigantzak idatzi dituzten ahobiziei, segurtasuna, poza, indarra, babesa, ahalduntzea, talde izaera bezalako sentrazioak sorrarazi dizkie.

#### **4. Euskaraldiaren eragina euskararen erabileran**

Euskaraldia izan da euskararen kale erabilera bultzatu guran euskalgintzatik ernatu den Euskal Herri mailako lehen ekimena. Bertan Txepetxek deskribatutako hiztun osoen izateko nahia erakutsi dutenek, ahobiziek, izan dute paper garrantzitsuena: hizkuntza ohiturak euskarara ekartzeko akuilu lana egitea, euskararen erabilera aktibatzea, kasu. Horrez gain, Euskaraldiak Fishmanek zerrendatutako 6. arrisku mailan berariaz eraginez eguneroko bizimoduan euskararen erabilera areagotzeko xedea izan du: kalean, familian, lagun artean, tabernetan zein saltokietan...

Euskal Herri luze zabaleko ahobizien berri eman da lan honetan zehar: lurralde administratiboaren, eskualdearen edota herrien arabera banatuz. Hala, ikusi ahal izan da ahobizien ordezkariak zein lekutan den indartsu, zein lekutan dagoen sendo eta zeinetan ahul. Gipuzkoa da ahobizi tasa altuena duen probintzia, euskaraz bizitzeko nahi gehien adierazi duena: herrietako biztanleriaren arabera, esaterako, Baliarrain da ahobizi lez parte hartze tasa altuena erakutsi duena

Euskaraldiaren web gunean irakurritako testigantzekin ikusi da, aitzitik, ahobizi tasa gehien kontzentratuta dagoen lekuetatik testigantza gutxi idatzi direla. Izan ere, aztertu diren testigantzen zati handiena ahobizi tasa baxua den lekuetatik igorri da: Bilbotik, Gasteiztik, Iruñetik. Donostiatik ere makina bat testigantza idatzi dira. Donostiak, baina, beste hiru hiriburuen aldean ahobizi tasa altuagoa du. Korrelazio eza antzeman da, edozelan ere, ahobizien parte hartze datuen eta ahobizien testigantzen jatorrien artean.

Datu eta testigantzetan igarritako korrelazio eza Xabier Aierdi soziologoak dioen lez anibalentzia esanguratsu baten ondorio izan daiteke.

Hots: herri handi edo hirietan euskal hiztun ehuneko txikia izanagatik kopuruz handia izatea alde batetik; eta, bestetik, herri txikiagoetan euskal hiztun ehuneko altua edukiagatik kopuruz baxua izatea.

Anbibalentzia hori hain da argia, ezen Barakaldon 1.797 pertsonak ahobizi legez izena eman badute ere portzentaia %2,08-a dela; eta, Baliarrainen, berriz, ahobizi lez izena emanikoak 46 pertsona izanagatik portzentaia %45,1 dela. Barakaldon 100.000 pertsonatik gorako biztanleria duen hirigunea da, Baliarrain, aldiz, 121 pertsonako herritxo bat.

Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatuz bi mundu ezberdin hauek uztartu gura izan ditu, baita aipatu anbibalentziari aurre egin ere inguru euskaldunetan euskararen erabilera indarberrituz eta inguru ez hain euskaldunetan euskararen erabilera normalizatuz.

#### **4.1. Ahobiziak Barakaldotik Baliarraina joan etorrian**

Lan honen hasiera partean aitatu da Barakaldo izan dela euskalgintzaren atzo arteko paradigma nagusia, euskararen ezagutza eremu erdaldun eta formaletan hedatzea helburu izan duena. Azkenaldiko behaketa eta inkesten emaitzek, ordea, paradigma horren amaiera edo moldaera premia dagoela erakutsi dute. Akaso, amaiera barik moldaketa beharra dagoela esatea egokiagoa da. Izan ere, euskararen ezagutzan oinarritutako asmoek igurikapenak bete ez izanak, ez du bidean jasotako uzta alferrik galtzea esan gura. Zelan demontre uztartu, ordea, eremu euskaldunak eta eremu erdaldunak? Posible al da bi eremuak uztartzea jakinda bi eremuotara mugatzen ez den errealitate konplexua duela Euskal Herriko herri eta hiri bakoitzak?

Txepetxen laguntzarekin ikusi da euskararen erabileran oinarritutako komunitate egituratua garatzeko gune sinbolikoa sustraitzea ezinbestekoa dela, eta horretan ahobizien akuilu lana erabakigarria izango dela. Inguru euskaldunetan, non euskararen erabilera altu xamarra den eta ahobizien portzentaia ere dezentea den, Txepetxek irudikatzen duen euskararen komunitate egituratua betetzeko aukera handiagoa dago.

Inguru hauetan ahobizien eta, oro har, gune sinbolikoaren hedadura zabalagoa da, euskal hiztun osoak erdigunearen jabe dira hainbatetan. Baliarrain litzateke hizkuntza komunitate eredu honen adibide gorena, non ahobizi tasa %45,1 den.

Inguru erdaldunetan, bestalde, euskararen ezagutza eta erabilera falta nabarmenagatik erdal elebkarrek erdigunea okupatzen dute. Euskararen presentzia oso da eskasa eremuotan. Hasieran aipatu den Barakaldo da euskararen komunitate desegituratu mota honen adibide sinbolikoa. Barakaldon ahobizi tasa %2,08-a da.

Barakaldon eta Baliarrainen gertatzen den bezala zenbat eta euskararen erabileran oinarritutako komunitatearen gune sinbolikoa handiagoa eduki, ahobizi tasa altuagoa izateko probabilitatea dago. Eta, alderantziz, zenbat eta euskararen erabileran oinarritutako komunitatearen gune sinbolikoa txikiagoa izan ahobizi tasa baxuagoa. Modu sinplean esanda inguru euskaldunetan euskaraz bizitzeko nahi handiagoa dagoela, inguru erdaldunetan baino: horrek ez du esan gura, halere, inguru erdaldunetan euskaraz bizi nahi dutenak intentzios eta kopuruz maiz gutxiago direnik, kopuruz maiz ugariagoak dira eta, baizik eta harreman sare erdaldunak gain hartzen diola nabarmen harreman sare euskaldunari.

Ahobizien sailkapen orokor bat egingo balitz herriz herri batu diren portzentaiak bereizteko, lau mailatan banatzea da aukeretako bat: %0-%5 ahobizi artean luketen eremuak, %5-%10 ahobizi artekoak, %10-%20 ahobizi arteko eremuak eta, azkenik, %20-tik gorakoak.

#### **a) % 0 - % 5 Ahobizi: Barakaldo**

Barakaldo dago ahobizi portzentai baxueneko mailaketa honetan (% 2,08 ahobizi), baina baita, esate baterako; Bilbo %3,49, Gasteiz %3,99, Iruña %2,39, Baiona %0,67, Miarritze %0,22, Eguesibar %2,62 edota Andosilla %1,13, Tutera %0,37, Urruña %3,02, Maule-Lextarre %3,5, Zanbrana %1,2, Argantzun %3,11, Karrantza %1,94, Santurtzi %3,1, Irun %4,91....

Herri asko sartzen dira maila honetan, non ahobizien portzentajeak %5-a baino baxuagoak diren. Azpimarratzekoa da, gainera, Euskal Herriko hirigune handi eta ugariak azpitalde honetan kokatzen direla.

Bestalde, azpimarratzekoa da Barakaldo eta Maule-Lextarre, bi-biak %5-tik beherako ahobizi tasarekin, sailkapen berean topatzea. Izan ere, pentsatzekoa da Maulek izan dezakeen gune sinbolikoa Barakaldok duena baino zabalagoa izatea. Hitzun osoei dagokienean Maule hornituago egotea Barakaldo baino. Euskaraz aritzeko kapaz diren biztanleek hornituago dagoela, alegia. Halere, bi-biek %5-tik beherako ahobizi tasa batu dute. Lekuan lekuan, beraz, joerak ezberdinak antzematen dira eta tasa bertsuarekin errealitate ezberdinak irudikatzen dituzte.

Are gehiago, sailkapen honetan batutakoen artean biztanle kopuruari dagokionez mota guztietako udalerriak barnebiltzen dira, herri txikietatik hasi eta hiririk handienara. Esaterako, Uharte Garazin 700 lagun bizi dira eta Bilbon, aldiz, 340.000 lagun. Ahobizi tasa ez, baina ahobizi kopuru aldetik alde nabarmena dago bien artean.

#### **b) % 5 - % 10 Ahobizi:**

Portzentai tarte honetan batuko lirateke, besteak beste, Donostia bezalako hirigunea, zeina Euskal Herri osoko hirigunerik euskaldunena den %7,97 ahobizi. Baina, baita bestelako eremuak ere: Sara 8,37, Ainhoa %6,13, Baigorri %8,53, Donaixti-Ibarre %8,28, Etxebarre %8,59, Izaba %6,58, Irunberri %8,57, Ultzama %8,27, Altsasu %8,17, Moreda %5,61, Bastida %6,95, Zuia %8,82, Galdames %6,66, Artzentales %5,19, Zierbena %5,4, Zamudio %8,8, Sopela %8,02, Galdakao %7, Zumarraga %9,18, Hernani %8,95, Errenteria %6,09.

Atal honetan tipologia ezberdinetako herri txiki eta herri handixeagoak (bitarteko herriak) biltzen dira. Era berean, norabide ezberdina irudikatzen duten joerak antzematen dira hemen. Hau da, euskalduntzen ari direla uste direnak: uste da Artzentales edota Moreda euskalduntzen ari direla ezagutza aldetik, bederen. BA jabekuntza prozesuaren bitartez, esan nahi da.

Eta ustez erdalduntzen ari direnak: Hernanin, esaterako, azken kale neurketak erakusten du 2011-tik 2016-a 10 puntuko galera egon dela euskararen kale erabileran. Euskal Herriko ahobizi tasa portzentai tarte honetan kokatzen da %6,17. Ainhoa herriak bildu dituen ahobizi portzentaletatik hurbil %6,13.

#### **d) % 10 - % 20 Ahobizi**

Sailkapen honetan leudeke, esaterako: Itsasu %12,4 ahobizi, Bunuze %12,5, Donibane Garazi %11,32, Muskildi %11,24, Erronkari %12,69, Etxarri Aranatz %18, Donamaria %13,58, Barrundia %13,16, Legutio %13,8, Urkabustaiz %11,62, Zeanuri %18,74, Atxondo %15,53, Bermeo %16,81, Mungia %11,3, Muxika %14,04, Durango %11, Arrasate %15, Eskoriatza %16,1, Eibar %10,31, Lasarte-Oria %11,95, Aia %11,41, Hondarribia %10,14...

Akaso, sailkapen honek erdalduntzen ari diren eremuak barnebiltzen ez ote dituen nagusiki. Bermeon,, esaterako, azken kale neurketaren arabera 2011-tik 2016-a bitarte 3 puntuko jaitsiera izan du euskararen erabilerak. Kasu honetan, halaber, herri txiki eta bitarteko herriak nabarmentzen direla esan daiteke. Eskualde buru batzuk ageri dira hemen: Eibar, Bermeo, Durango, Arrasate... Mailaketa honek euskararen ezagutza eta erabilera aldetik eremu oparagoak erakusten ditu, halere, aurreko mailaketekin alderatuta..

#### **e) > % 20 Ahobizi: Baliarrain**

%20-tik gorako sailkapen honek biztanle kopuruz txikiagoak direnak biltzen ditu; bitarteko zenbait herri eta herri txikiak, gehienbat. Bizkaiko zenbait herri txiki, Gipuzkoako herri txiki eta bitartekoak, eta Nafarroa iparraldeko herri txikiak barnebiltzen ditu ahobizien mailaketa honek: Aulesti %30, Areatza %24,75, Dima %24,38, Baliarrain %45,1, Gabiria %33, Orendain %34,16, Zegama %29,55, Oñati %24,18, Azpeitia %22, Arantza %27,69, Goizueta %22,86, Araitz %25,44, Larraun %36,71.

Esan daiteke multzo honetan sartzen diren herriak 15.000 biztanletik beherakoak direla gehienbat. Beraz, Xabier Aierdik iradoki legez badirudi errazagoa dela euskal hiztun sustraituak aurkitzea herri txikietan hiriguneetan baino. Ahobizien gotorlekua, bada, Bizkaia ekialdeak, Gipuzkoak eta Nafarroako iparraldeak osatzen dute. Hiruek osatzen duten gunea da ahobizien habia; portzentaieen arabera bai, bederen.

Euskarak presentzia handi xamarra duen hiruko eremu gotortu honek irradiazioaren eraginez gotorlekuak kanpoko eremu ez hain euskaldunetan aliatuak bilatu beharko ditu, gotorlekuak txikitzea barik zabaltzera egin dezan

Euskararen enklabe honetako herriek irudikatzen dute euskararen erabilerarentzat komunitate egituraketarik egokiena. Baliarrain da eredurik gorena, %45,1 ahobizi. Barakaldotik harago joanez, Baliarrain erako hizkuntza komunitateak eraikitzen hastean datza gakoa. Jakinik, bidenabar, lekuan lekuan errealitateak ezberdinak direla eta bakoitzaren erritmoak errespetatzea ezinbestekoa izango dela. Alabaina, Barakaldo lako eremuetan ere Txepetxen BA profiletik AB profileko euskal hiztunak sortzera igaro behar da. Ezagutzatik (BA) bezainbat edo gehiago euskal hiztun osoak erabileratik (AB) sor daitezten, erabileratik sortutako hiztunak dira hizkuntzaren bizitasunaren berme nagusia eta.

Aipatutako ahobizien portzentaiek, txikienetik handienerako eremuek, ertz batetik besterako ibilbideak ezagutzatik erabilerara dagoen zehar lerroa irudikatzen dute. Ertz batean Barakaldo dago, ezagutzan oinarritu den euskararen normalizazio ikurra. Euskararen erabileran oinarritutako euskararen gune sinbolikoa periferian duena. Beste ertzean, Baliarrain, erabileran oinarritutako euskararen gune sinbolikoa sustraituena duen herria, ahobizi gehien duen herria.

Barakaldotik Baliarrainera berehalako batean igaroko zela uste zen pasa den mendearen hondarrean. Erabilera erraztu behar luketen korronteak, ordea, uste baino marea bizi nahasiagoetan daude trabatuta Barakaldon, eta baita aspaldion Baliarrainen bertan ere.



Izan ere, korronteon eraginpean euskara hondoratzetik salbatzeko flotagailu lana egin zezaketen eremuak kolokan dauden honetan, zelan eutsi erabileran oinarritutako komunitateari Baliarrainen? Edota zelan igaro ezagutza abiapuntu harturik, erabileran oinarritutako komunitatera Barakaldon?

#### **4.1.1. Ahobizi maila baxuko eremuetan euskararen komunitatea egituratzen**

Barakaldo eta Maule-Lexarre arteko alderaketa egin denean, ikusi da gizarte aferak ez direla matematika hutsak. Zeren, bi eremuen arteko alderaketarekin ikusi da (Barakaldo %2,08 ahobizi, Maule-Lexarre %3,5 ahobiziz) zifra bertsuaren bueltan errealitate ezberdinak islatu daitezkeela. Ahobizi portzentai baxua izateak ez du esan gura gune sinbolikoa berariaz baxua izango denik. Kasu honetan, endemas, begi bistako ezberdintasuna dago bi eremuen artean, bi estatu ezberdinen baitan bizi baitira.

Era berean, konplexutasunaren beste angelu batek erakusten du euskalgintzatik egin ohi diren Euskaraldia bezalako ekimenak apartekoegi begitantzen zaiela euskal hiztun oso bati baino gehiagori. Ipar Euskal Herrian, bederen halako zeozer nabari da. Horrez gain, Euskaraldian parte hartu ez duten EAEko zenbait herri nanoren kasua aipatu da lehenago: Mutiloa, Ziortza-Bolibar, Nabarniz... Herri txiki hauetan euskararen erabilera eguneroko kontua da, berez egiten dutena. Seguruena, herri txiki hauetako biztanleek ez zuten inolako beharrik ikusiko euskaraldian ahobizi legez izena emateko, euskararen alde zeozer egin behar dutenik ez dutelako sentitzen.

Alabaina, lan honen hastapenetan aipatu lez arnagune diren zenbait herritako euskara erabilera jaitsierak erakusten du, mundu globalizatu honetan herririk isolatuena ere gero eta mundutarrago bihurtzen ari dela, euskaraz gain osterantzeko hizkuntzak gero eta etxeokoago sentitzen direla. Hartara, herri isolatuak murrizten ari direla eta, badirudi haize ufada bortitz horiei eusteko nolabaiteko kontzientziaz hornitu behar dela euskararen hiztun oso den edonor., euskal hiztun osoz hornitutako ezein herri. Euskaraz zergatik egiten duten ez dakiten herrietan ere, euskara araua den herrietan ere gero eta garrantzi handiagoa izango du hiztun osoak ahobizi izatera igarotzeak.

Aitzitik, argi dago euskararen erabilerarena ez dela ahobizi tasa handitze soilarekin konponduko. Edozelan ere, ahobiziaren profilaren nondik norakoez lan honen bukaeran hausnartuko da sakonago, orain hobe atal honi dagokion gaiari oratzea ñabardura artean galdu orduko.

Demagun, beraz, matematikaren lege sinpleetara makurtuta ahobizi portzentai tasa baxua izan duten lekuetan gune sinbolikoa ere, berariaz, baxua dela. Hots, hiztun osoen presentzia ere baxua dela. Hala gertatzen da Barakaldon bertan, Bilbon, Baionan, Gasteizen, Iruñean, Artzentalesen edota Lodosan. Pentsatzekoa da ere eremu hauetan hiztun hartzaileak, naturalizatu bako hiztun kulturizatuak dentsitate handiagoa edukitzea hiztun osoek baino. Hau da, jendeak euskara ikasi du eskolan edo euskaltegian, baina oraindik naturalizatzeko pausurik ez dute burutu, besteak beste, bizi diren lekuko euskararen gune sinbolikoa zinez delako murrizta. Kanean ez da euskara apenas erabiltzen, beraz, ezin ikasitakoa praktikatu.

Barakaldo lako eremu erdaldun hauetan, bada, ahobizien akuilu lana ezinbestekoa izango da euskararen komunitateko gune sinbolikoa sendotu eta, ezarian-ezarian, gune sinbolikoa zabaltzeko, hiztun oso gehiago eratzeko. Izan ere, eguneroko bizimodu arruntean, familian, lagun artean, kanean, taberna edo saltokietan, ahobiziek hiztun osoekin eta hiztun hartzaileekin (testigantzetan belarriprest rol gisa ulertutakoari hiztun hartzaile deituko zaio hemendik aurrera) edukiko dituzten harremanetan euskara gero eta gehiago egitea gakoa izango da.

Alabaina, Baliarrainen gisan Barakaldon ere ahobiziek hiztun osoekin mantendu elkarrizketak lehentasuna izango dute. Hiztun osoak, jada, gune sinbolikoaren partaide direlako eta euskaraz aritzeko gaitasun handiena dutelako. Egiteko gai badira egitera bultzatu behar dira, hiztun hartzaileekin hori egitea nekezagoa da.

Aspaldion euskalgintzan aipatu gailentzen ari den ikuskera da zonalde euskaldunetako ahobizien eta hiztun osoen euskara erabilera jaitziera iraultzearen beharra. Aldi berean, eremu erdaldunagoetan ere ahobizi eta hiztun osoen arteko harremanak euskaraz garatzea lehentasuna izango da.

Orobat, baina, hala hiztun osoekin nola hiztun hartzaileekin, ahobiziek akuilu lana egin beharko dute aipatu bi profiak euskaraz gehiago aritu daitezenean. Batez ere, ahobizien inurri lana ezinbestekoa izango da eremu erdaldunetako eguneroko bizimoduan: familia edo etxean, lagun artean, kalea nahiz saltoki edo tabernetan.

Ondoren, bada, euskararen erabilera areagotzeko asmotan eremu erdaldunetako eguneroko bizimodu arruntean ahobiziek egin dezaketena aztertuko da

## - **Familia**

### Ahobizi & Hiztun Oso

Gurasoek seme alabekiko duten tratuan, bikote arteko harremanean edota seme alabek gurasoekin duten erlazioan, hain euskaldunak ez diren eremuotan ahobizi eta hiztun osoen erdararako joera iraultzea funtsezkoa da. Berriki Soziolinguistika Klusterrak egin analisian, euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak aztertzean ondorioetako bat izan da euskaraz aritzen diren gehienek euskara etxean jaso ohi dutela. Berebiziko garrantzia dauka, hartara, guraso elebidunek (ahobizi & hiztun oso) euskarazko hizkuntza ohiturak sendotzea etxeko edo familiako giroan.

Ikerketan parte hartu duen Olatz Altunak zera dio: “Euskararen erabilerak asko irabaziko luke guraso elebidunek euskara erabiltzeko ohitura transmitituko baliete seme alabei”. Eremu erdaldunetan erabileratik eratutako hiztun osoak gura badira, familiak, etxeak berebiziko garrantzia du. Hau da, Barakaldoren paradigmatik ahalbidetu duen BA jabekuntza prozesuaren bidez ahobizi eta hiztun oso bihurtu diren gurasoek; esaterako, etxean haurrak erabileratik, AB norabideko euskara jabekuntzatik hezteak gakoak da.

Horrela, hiztun osoen arteko euskara erabilera areagotuz gero, hizkuntza baten neurgailu behienena den erabilera bermatzeaz gain, gune sinbolikoa erabileratik sendotu eta hiztun osoak hiztun hartzaile profilerara pasatzea ekidingo litzateke.

Izan ere, hiztun oso askori gertatu zaie euskara ez erabiltzeagatik (guraso diren bikoteak beraien artean euskaraz ez egiteagatik, adibidez) komunikazio gaitasuna galdu eta hiztun hartzaile profileraz igarotzea, gune sinbolikoa murriztuz.

Testigantzetan ikusi da, bestalde, familia barruko harremanetan posible dela eremu ez hain euskaldun batean ahobizi eta hiztun osoen arteko harremana erdaratik euskarara aldatzea Atarrabiako Rosaren amaginarrebak erakutsi bezala.

Ahobizien akuilu lana erabakigarria da halako gertaerak eman daitezen. Barakaldon nahiz Iruñean euskaldun berri asko sortu direnez (BA), beraien artean ahobizi eta hiztun oso diren heinean euskara erabiltzea estrategikoa da, euskararen erabileran oinarritutako komunitatea egikaritu dadin

### Ahobizi & Hiztun Hartzaile

Eremu erdaldunagoetan edo eremu ez hain euskaldunetan hiztun hartzaileen presentzia handiagoa izan ohi da. Hala, eremu hauetan euskararen gune sinbolikoa txikiagoa denez eta, hori dela eta, hiztun osoen dentsitatea ere txikiagoa denez, ahobiziek hiztun hartzaileekin mantenduko dituzten elkarrizketak elebidunak izatea estrategikoa izango da. Horrela, hiztun hartzaile profilekoen euskara gaitasuna hobetu eta, apurka-apurka, hiztun oso bihurtzeko posibilitatea handitzen da; hots, gune sinbolikoa handituko litzateke. Era berean, ahobizi eta hiztun hartzaile gurasoen elkarrizketa elebidunek haurra AB jabekuntza norabidean heztea bideratuko lukete.

Testigantzetan ikusi da bikote arteko elkarrizketan, adibidez, bozkariozko bizipenak idatzi direla. Zenbait bizipenetan aipatu da hiztun hartzaile profileko bikotekidearekin euskarazko elkarrizketak mantendu dituztela eta pozik sentitu direla hala egin dutelako. Bilboko Koldobikaren bizipena, kasu. Arlo honetan, ahobiziaren papera hiztun hartzaileak animatzea da eta behin pausua egin dutenean trabak jartzea eragotzi eta beraien egiten uztea.

- **Lagun artea**

Ahobizi & Hitzun Oso

Lagun artean ere inguru ez hain euskaldunetan euskaraz aritzeko aukera gutxiago egon ohi da gunen sinbolikoa edo hitzun osoen dentsitatea baxuagoak direlako inguru euskaldunagoekin konparatuta.

Halere, lehenasunezko neurria litzateke eremu erdaldunagoetan ere ahobizi & hitzun oso diren lagun arteko harremanak erdaratik euskarara igarotzea edo euskaraz sortzea, baita lagun arteko euskarazko harremanak mantentzen saiatzea. Bueltan-bueltan, gunen sinbolikoa euskararen erabileran zurkaiztu dadin familian bezala lagun artean halako hizkuntza ohiturak aldatzea funtsezkoa da.

Testigantzetan Zizur Nagusiko Estitxuk erakutsi lez eremu erdaldunagoetan ere posible da lagun artean erdaratik euskarazko elkarrizketetara igarotzea. Garrantzitsua da ahobizien akuilu lana eremu erdaldunetako lagun hitzun osoek euskara gehiago egin dezaten.

Ahobizi & Hitzun Hartzaile

Familian duten garrantziaren antzera lagun artean ere hitzun hartzaileen ekarpena funtsezkoa da elkarrizketa elebidunak mantentzeko. Eremu erdaldunetan, gainera, hitzun hartzaileen profilekoen presentzia handiagoa da hitzun osoena baino. Batez ere, eremu hauetan gazte asko dago euskara eskolan edo ikastolan ikasitakoa, baina euskara ez erabiltzegatik hitzun hartzaile profilerak pasa direnak. Hori dela eta, garrantzitsua da hitzun hartzaile hauek euskarazko elkarrizketak ez oztopatzea, hala, apurka-apurka, elkarrizketa elebidunen garapenaz hitzun oso bihurtu daitezkeen eta euskararen erabileran oinarritutako gunen sinbolikoa hedatzen lagundu dezaten.

Testigantzetan ikusi da ahobiziek positiboki baloratu dutela zenbait hitzun hartzailearen ahalegina euskarazko elkarrizketak ez tratatzeko. Zentzu horretan Bilboko Maialenek eskainitako bizipena argigarria izan da.

Ahobiziek kasu hauetan hiztun hartzaileengan igartzen dituzten keinuak babestea komeni da, keinuok zorionduz gerora ugaritu daitezen.

- **Kale giroa**

Ahobizi & Hiztun Oso

Eremu ez hain euskaldunetan euskararen erabilera normalizatzeko bidean, kale giroan zein auzoko hara honako ibileran, ezein ezagun hiztun osoekin gurutzatzean erdarazko ohiturak euskaratzea edo ezezagun hiztun osoekin euskarazko harremanak sortzea ezinbestekoa da. Testigantzetan Iruñeko Amayak adierazi bezala posible da, lantzean lantzean, eremu ez hain euskaldunetan ere euskal hiztun osoekin topo egitea kalean. Hala deneko kasuetan ahobizien jarrera zinez da gakoa elkarrizketok erdaratik euskarara lerratu daitezen edo kaleko zein auzoko harreman berriak euskaraz sortu daitezen. Garrantzitsua da oso Iruñean zein Barakaldon kale giroan euskara normalizatzen hastea, komunitatea euskararen erabileratik egituratzen has dadin.

Ahobizi & Hiztun hartzaile

Era berean, eremu erdaldunagoetan hiztun hartzaileen presentzia hiztun osoena baino nabariagoa denez, ahobiziek ezagutu behar dituzte profil hau betetzen dutenak nortzuk diren, elkarrizketa elebiduna zeinekin mantentzeko jakiteko. Hala, hiztun hartzaile profila osatzen dutenekin kaleko giroan euskara erabiliaz, hizkuntza hobeto barneratu eta hiztun oso izatera pasa daitezke hiztun hartzaileok, gune sinbolikoa hedatzearekin batera komunitatea euskararen erabileratik egituratuz. Iruñeko Maitek kalean koinata ikustean mantendu elkarrizketa elebiduna aipatutakoaren adibide,

- **Saltoki eta taberna giroa**

Ahobizi & Hitzun oso

Eguneroko bizimoduan taberna edo saltokietan sartu irtenak egiteko ohitura dagoenez gero, establezimendu hauetan burutu hizkuntza ohiturak ere zinez dira garrantzitsuak.

Dendaria edo tabernaria hitzun osoa dela jakiteak ahobizien akuilu lana bideratu dezake. Zeren, eremu erdaldunagoetan komunitatea euskararen erabileratik egituratzeko ohiko taberna eta saltokietan euskararen presentzia areagotzea ezinbestekoa da.

Bizipenetan Gasteizko Almudenak esan bezala farmazia batean ordura arte erdarazko elkarrizketa zena euskarara igarotzea oinarrizko pausua da, hala; salerosketa giroan edo pintxo poteetan euskararen erabilera areagotuz, euskararen presentzia elikatzen da, euskararen erabileratik komunitatea egituratu.

Ahobizi & hitzun Hartzaile

Eremu erdaldunetan esan bezala hitzun hartzaile profileko jende gehiago dagoenez, ahobizien lana izango da saltoki zein tabernetan ahal duten neurrian euskara hartzaile direnekin elkarrizketa elebidunak mantentzea: okindegian, supermerkatuan, etxe ondoko tabernan...

Saltzaile edo tabernari horiek ere, arian-arian, euskara erabiliaz hitzun oso izatera pasa daitezten, euskararen erabileratik komunitatea egituratuz. Esaterako, ahobizien bizipenetan Bilboko Tomasek dio orain badakiela euskaraz zein saltokitan aritu daitekeen. Ahobizien lana hori ere bada, euskarazko elkarrizketak izan ditzaketen taberna zein dendak identifikatzea elkarrizketa elebidunak edukitzeko.

Eremu ez hain euskaldunetan zentratu da orain artean euskalgintza, aipatu da Barakaldok iruditeria horretan izan duen garrantzia zelakoa izan den.

Batez ere, ezagutzen hezurmamitutako hizkuntza politiken ondorio izan da Barakaldo lako eremu erdaldunak euskalduntzeko desira. Txepetxek azaldu bezala desegituratutako komunitateetan jarri dira atzo arteko arreta guztiak, non erdigunean erdaldun elebakarreko profila dagoen.

Pentsatzen zen euskararen ezagutza barreiatuz euskarak erdigunea eskuratu eta erabileraren laguntzarekin, euskararentzat komunitate desegituratua zena berehala egituratuko zela.

Denborarekin ikusi da ez dela halakorik gertatzen ari. Eremu erdaldunotan euskararen presentzia, are gutxiago erabilera, ez dela sendotzen ari, ez dela normalizatu. Neurri batean desegituratutako komunitate horietan BA profileko euskal hiztun osoak eratu dira, euskaldun berriak ernatu dira. Halaber, hiztun hartzaileak ere areagotu dira, agian, modu nabarmenagoan. Halere oraindik urruti dago euskararen erabileran oinarritutako komunitate egituratua izatetik, hiztun oso eta ahobizi gehiago behar dira horretarako.

Izan ere, eremu hauetan euskara ia (guztiz ez esatearren) desagertua egon da urte luzeetan, Fishmanen 8. arrisku mailatik gerorako fasean. Hori dela eta, hiztun primarioak ia ez dagoenez normalizatu berba erabili da euskalgintzan normala ez zena normalizatu gura zelako; euskara Barakaldon erabiltzea, esaterako. Beraz, ezagutzaren bideak eremuotan ernatutakoa askotan onartzen den baino baliozkoagoa da. Euskara existitu ere egiten ez zen lekutik euskaldun berriak sortu direlako, horietako batzuk; gainera, euskaraz bizi dira

Eremuotan ezagutzak zabalduko bideari jarraipena emateko zein eremu euskaldunagoetan erabilera jaitsiera iraultzeko ahobiziek bi zeregin nagusi izango dituzte, hartara: hiztun osoekin euskara komunitatearen gune sinbolikoa erabileratik sendotu eta hiztun hartzaileekin euskara komunitatearen gune sinbolikoa erabileratik handitu, hedatu.



#### **4.1.2. Ahobizi maila altuko eremuetan hizkuntza komunitatea berregituratzen**

Euskararen erabileran oinarritutako komunitatea egituratua zegoela uste zen lekuetan desegituratze zantzuak agertzen hasi dira. Horregatik, euskalgintzan azken urteetan zabaltzen ari den mezua da euskararen komunitatea sendo dagoen lekuetan mantentze lanak egitea edo desegituratze zantzuak agertu diren eremu euskaldunetan berregituratze neurriak garatu beharra.

Hala, ahobizi portzentai dezenteak batu diren lekuetan ahobizien zeregina izango da desegituratzen ari diren komunitateak berregituratzea edo egituratua dauden komunitateak bere horretan mantentzen ahalegintzea.

Bada, kasu hauetan euskararen komunitatearen gune sinbolikoa eremu erdaldunetakoa baino zabalagoa da eta leku askotan gune sinbolikoa erdigunean egon ohi da: gune sinbolikoa ardatz duen euskararen komunitate egituratua nagusi izango da inguruotan. Egituraketa egokiaren seinale da euskararen erabilera leku horietan eguneroko kontua izatea.

Gune sinbolikoa hizkuntza komunitatearen erdigunean dagoen lekuetan ahobizien portzentaia altuagoak jaso dira, besteak beste: Gamarten, Larraunen, Diman, Aulestin, Bergaran, Oñatin nahiz Baliarrainen. Eremu hauetan euskararen presentzia edota, segun zein lekutan euskararen erabilera, normala eta eguneroko bizimodu arrunterako ezinbestekoa da. Hartara, eremu hauetan euskararen egoera normalizatu baino indarberitu beharra aldarrikatzea egokiagoa litzateke. Zenbait eremutan euskararen eguneroko presentzia eta erabilera gutxitzen ari delako.

Fishmanen 6. arrisku mailako jardun guneetara itzuliz, eremu euskaldunagoetako ahobizien akuilu lana, Barakaldokoena nola, esan barik doa funtsezkoa izango dela lehentasuna duten hiztun osoekiko tratua euskaraz garatzera itzuli dadin eta, era berean, hiztun hartzaileen ekarpena hauspotua izan dadin. Arestian, aipatutako ahobizien bi zeregin nagusiak berriz ere azpimarratuz.

## - **Familia**

### Ahobizi & Hitzun oso

Olatz Altuna Soziolinguistika Klusterreko teknikariak esan bezala, giltzarria da etxean euskara transmititzea, gerora ezein jardun guneetan euskaraz aritzeko erraztasun handiagoa dutelako euskara etxean jaso dutenek. Ahobizien akuilu lana ezinbestekoa izango da etxeko eta familia giroko elebidunen arteko elkarrizketak euskaraz gara daitezen, erdarako joerak irauliz eta euskarazkoak mantenduz.

Mungiaiko Agurtzanek bere bizipenean iradoki legez, erdi ahobizi duen senarrarekin erdararako tendentziei galga jartzea mesedegarria litzateke. Hartara, gune sinbolikoa euskararen erabileratik sendotu eta komunitateak desegituratzera egin ordez bere horretan mantendu edo egituratzera egingo luke.

### Ahobizi & Hitzun Hartzaile

Lehentxeago aipatu Soziolinguistika Klusterraren ikerketatik ateratako beste ondorioetako bat arnasmune diren zenbait eremutan euskararen erabilera ezagutzaren ginetik dagoeneko izan da.

Ondorio horretara heltzeko etxeko eta kaleko erabileraren arteko aldagaiak gurutzatu dira. Hala, aztertu diren zazpi herritik seitan euskaraz gehiago egiten da kalean etxean baino. Iñaki Iurrebaso soziolinguistak *Bat* aldizkarian bi hipotesi aipatu ditu aipatu joera arrazoitzeko: batetik, arnasmuneetara iritsi diren bizilagun berriek erdararako joera gehiago dutela, eta; bestetik, jokabide ezberdinak edukitzea etxean eta kalean.

Arnasmuneetako etxeetan zein arnasmune ez diren, baina eremu nahiko euskaldunak diren etxeetan erdararako joera nagusitzen ari bada, hitzun hartzaile profilekoek erdarako joerok geratzeko egin dezaketen lana kontutan hartzekoa da. Esaterako, Lekeitioko Julianek bere bizipenean kontatu lez emazte hitzun hartzailearekin 40 urtetan zehar mantendutako erdarazko hizkuntza ohitura euskarara igarotzea lortu daitekeela erakutsi du.

Berdin gertatu daiteke, beraz, eremu euskaldunetara heldu berri diren balizko hiztun hartzaile profilekoekin ere.

- **Lagun artea**

Ahobizi & Hiztun oso

Lagun artean non gehiengoa hiztun osoa den, denak ez esateagatik, ahobizien zeregina litzateke erdarako joera dagoen lagun arteetan akuilu lana egitea euskara gero eta gehiago erabilia izan dadin edo hala izaten segi dezan. Horrela, euskararen erabileran oinarritutako komunitatea desegituratu ordeztu egituratzera egingo luke, gune sinbolikoa sendotuz

Anartean, ahobizien zeregina ere bada euskararen komunitate egituratua mantendu dadin, euste eta aktibazio lanetan murgiltzea lagun arteko giroan. Hala, Arrasateko Jasonek bere bizipenean kontatu lez posible da Arrasate lako herri euskaldun xamar batean lagun arteko hizkuntza ohiturak euskarara aldatzea. Horrekin, egun nabaritzen ari den inguru euskaldunetako euskara erabilera jaitsiera irauliko litzateke.

Ahobizi & Hiztun Hartzaile

Etxean nola lagun artean ere hiztun hartzaile diren pertsonen ekarpena hauspotzea du eginkizun eremu euskaldunagoetako ahobiziak. Beti aditu den kontua da lagun artean nahiko dela euskaraz ez dakien bat egotea denak erdarara jauzi egiteko. Halako kasuengatik, besteak beste, ikusi da hiztun osoen artean ere gero eta joera handiagoa dagoela erdaraz aritzeko. Hartara, ahobizien lana premiazkoa da hiztun hartzaileen eragina beste era batera kudeatzeko eta euskarazko elkarrizketak ez oztopatzeko. Hala eginda, euskararen erabileratik egituratutako komunitateak egituratzera egingo luke gune sinbolikoa handituz.

## - **Kale giroa**

### Ahobizi & Hitzun oso

Familia kontuetan aritzean aitatu da zenbait arnasmune diren herrietan zazpitik seitan kalean etxean baino gehiago egiten dela euskaraz. Neurri batean hala mantentzea komeni da kaleko giroak etxean eragin dezan eta ez alderantziz. Izan ere, eragina kontrakoa izan daiteke, lñaki lurribasok esan bezala bizilagun berriengatik izan edo etxean ohiturak aldatzen ari direlako izan, posible da etxean nabarmentzen ari den erdararako joera kalera igarotzea.

Ez da disparte halakorik pentsatzea, ezen azken hamarkadako euskararen erabilera jaitzierak aipatu etxeko erdararako balizko joeran aurki dezake arrazoi bat. Edozelan ere, kaleko euskara erabilera mantentzea edota indarberitzen hastea berebizikoa da. Ahobiziek badute kalean non eta zertan eragin euskararen erabileran oinarritutako komunitatea sendotzeko.

Hartara, ahobiziek kalean hitzun osoekin mantendu hizkuntza ohiturak euskaraz garatu daitezen bermatu behar da. Bestela, etxeko joera kalera pasako daiteke.

### Ahobizi & Hitzun Hartzaile

Herri euskaldunetan kale giroan ere lagun artean nola, hitzun hartzaileen zeregina izan beharko litzateke ahobizi eta hitzun osoen arteko euskarazko elkarrizketak errespetatzea eta ahalik eta gehien ulertzen saiatzea.

Era berean, ahobizien eginkizuna izango da hartzaile profilekoak euskarara hurreratu daitezen laguntzea, izan ditzaketen keinu onak zorionduz eta izan ditzaketen jarrera ezkorrak asertibitatearekin antzaldatzen ahaleginduz. Era horretan gune sinbolikoak handitzera egingo luke, hitzun hartzaile direnak hitzun oso izateko bidean jarriko lirakeelako. Ahobiziek elkarrizketa elebidunak kale giroan egitea garrantzitsua izango da.

## - **Saltoki edo taberna giroa**

### Ahobizi & Hitzun oso

Normalean, herri euskaldunetako saltoki edo tabernetako langileak hitzun osoak dira. Hala, erdararako joera eragozteko ahobizien lana izango da establezimenduetan ere euskarazko elkarrizketak mantentzea, lagun artean edo kale giroan nola, tabernek eta saltokiek esparru publikoan duten presentziagatik eta kutsatze efektuagatik. Hartara, euskararen erabileratik egituratutako komunitatea sendotu egingo litzateke, desegituratzeko joerari galga jarritz.

### Ahobizi & Hitzun Hartzaile

Tabernaria edo dendaria euskal hitzun hartzailea bada ahobizien eginkizuna da ahal den neurrian euskarari eutsiz elkarrizketa elebidunak mantentzea. Garagardoak eta kafeak euskaraz eska daitezkeela erakutsiz, nahiz eta langileak erdaraz erantzun. Hitzun hartzailea elkarrizketa elebidunean eroso aurkituz gero, baliteke praktikarekin euskaraz aritzeko gaitasun nahikoa lortzea eta hitzun hartzaile izatetik hitzun oso izatera igarotzea.

Horrela, euskararen erabileran oinarritutako komunitatearen gune sinbolikoari eutsiko zaio eta ahal den neurrian hedatzeko bideak zabalduko lirateke hitzun hartzailea hitzun oso bihurtuta.

Barakaldok eta Baliarrainek, bi-biek, euskararen komunitate egituraketa ezberdina irudikatzen dute, Barakaldok euskararen erabileran oinarritutako komunitate desegituratua du, gune sinbolikoa periferian kokatzen da (batez ere, BA euskararen jabekuntza norabidekoak) eta erdigunean erdaldun elebakarrak dira jaun eta jabe. Baliarrainen, aldiz, erdigunean euskararen AB eta BA (batez ere, AB) euskararen jabekuntza norabideak gauzatu dituzten hitzun osoak kokatzen dira. Baliarraingo euskararen erabileran oinarritutako komunitatean gune sinbolikoa erdigunean dago.

Aitzitik, betiereko euskaldunak izango zirela uste ziren enklabeok urtzen hasi dira eta bestelako neurri eskean ari da euskararen erabilerak ez dezan beherakoan jarrai. Gaur egun euskal eremuok artatzearen beharraz ari dira ohartarazten euskalgintzako sektore oro. Alabaina, alarmok ez bezate orain arteko lorpenak gutxietsi, ez eta albo batera laga.

Egiaz, posible da bi komunitate egituretan euskararen erabilera bultzatzea,, euskararen gune sinboliko handia dutenetan eta txikia dutenetan: hiztun osoekiko tratuan oinarrituz zein hiztun hartzaileak mimatuz, hori bai lekuan lekuko berezitasunak errespetatzea komeni da. Ahobiziek bi eremuotan badute zeresanik, badute zer egiterik Barakaldon nahiz Baliarrainen.

## 4.2. Ahobizien eginkizuna Euskaralditik harago

Ahobiziek burutu Euskaraldiari buruzko balorazioetan usu aipatu den berba izan da talde izaerarena: taldeko kide izateko baliagarria izan dela, komunitatea egiteko balio izan duela. Gaur egunetan komunitate sentimendua eratzea zaila dela deritzo Xabier Aierdik, ordea. Batez ere, zaila deritzo hiri eta zonalde urbano populatueta komunitateak sortzeari. Izan ere, bere ustetan hiriak anonimotasuna ematen du, bizimodu itxi eta hertsietatik libre bizitzeko arnasa eskaintzen norbanakoari. Hala, anonimotasunak komunitatea errotik erasotzen du.

Gainera, Zeberioiko soziologoak dio hiriek euskararen komunitatearen desegituratzea azkartu dezaketen neurrian, euskara modu erreflexiboagoan erabiltzen dutenak ugaritzen ari direla. Honela laburbiltzen du joera: “komunitatetik gizaki bakunera, afektutik kalkulura”.

Richard Sennet soziologo estatubatuarrak hiriak ni sinple batetik askatzeko aukera ematen duela dio, norbere bertute bat baino gehiago adierazteko aukera emanez: “hiriak norbera izan gura duena izateko aukera ematen du”. Hori dela eta, hiritar izateak berarekin dakarren pentsaera irekitasuna maiz konpromiso faltaren ondorio izan ohi da estatubatuarraren ustetan. Konpromiso falta, beraz, Aierdik zioenaren haritik komunitatea eratzeko oztopo da.

Kontuak honela zelan egituratu Txepetxek euskararen erabileratik proposatutako komunitatea Barakaldo moduko hirigunean? Edota zelan eutsi euskararen komunitate egituratuari Baliarrainen?

Hirietan komunitateak eratzea zaila eta herri txikiak gero eta mundutarragoak diren honetan, Euskaraldia saiatu da lehendabizikoz Euskal Herri mailan euskararen erabilera oinarri komunitatea egituratzen. Sennett-en aburuz, alabaina, Aierdik zioenaren harira komunitatetik norbanakora norabidea nagusitzen ari da gizartean. Seguruenik, hiritarraren bizimoduarekin lotura zuzena duena, endemas. Norbanakoaren indartze prozesua egun gailentzen ari den egitate kultural eta ekonomiko bati leporatzen dio Sennet-ek. Zera dio soziologo estatubatuarrak: “kapitalismo berriaren kultura deiturikoaren adierazpideak dira, besteak beste, transformazio pertsonala balioestea transformazio kolektiboaren kaltetan”.

Hala, gizartean kolektibotik norbanakorako joera nagusitzen ari dela jabeturik, ez da kasualitatea Euskaraldiaren antolatzaileak 2020-ko ekitaldiaren nondik norakoen berri ematen hasiak direnotan, *kolektibo* edo *talde* bezalako berbak aipatzea. 2020-ko Euskaraldiaren edizioan entitateengan eragin gura da eta, horretarako, ahobizi eta belarriprest rolez gain ariguneak espazio berri bat sortu da. Ariguneak euskaraz egiteko espazioak izango dira eta euskarazko gutxieneko ulermena beharrezkoa izango da. Ari guneak taldeari begirako neurriak dira eta norbanakoa babestuago sentituko da euskaraz egin nahi izateko. Bada, ariguneon egitekoa euskarari espazio seguru bat eskaintzea da eta, era berean, ahobiziei edo belarriprestei zamatuz zaien ardura arindu.

Orriotan barrena ahobizien papera behin baino gehiagotan balioetsi bada ere, komeni da ahobizien zenbait eragozpen ere lerrootara ekartzea; ezen, Sennet-ek iradoki legez egungo gizarte gero eta indibidualizatuagoak norbanakoarengan jartzen duen zama pisutsuegia da.

#### 4.2.1. Ahobizien eragozpenak

Euskaraldian parte hartutakoei egindako kritiketako bat izan da, adibidez, itxurakeria hutsagatik parte hartu izana.

Euskararen erabiltzaile aktibo izateko izena eman bai, baina askotan ez dutela dagokien gisan jokatu eta erdaraz aritu izan direla euskaraz ari zitezkeenetan. Aipatu jokabideak lotura du nire ustez Xabier Aierdik aitutzen duen euskararen komunitatea egituratzearen zailtasunekin.

Izan ere, EHUko irakasle ohiak azpimarratzen du euskal hiztun askok euskara ez egitearena maiz lasaiago hartu beharreko kontua dela, euskaraz berba egiten ez badute askotan ezinezkoa zaielako dela; eta egunean 24 orduko militantzia mantentzea nekeza dela. Itxurakeria askoren atzean borondate ona egon liteke, baina, bestelako zirkunstantzia edo aldagairen bat tarteko, borondate on hori itxurakeria bilakatzen da sarritan. Delako artazi efektua izenez ere ezaguna dena: alde bai, baina erabili gutxi!

Hartara, Euskaraldian zeharreko ahobizien jarrera ez koherentea, itxurakeriarenak esan nahi da, gura eta ezinaren ondorio izan daitezke. Gura bai, baina beste elementuren baten ondorioz ezin aurrez pentsatutakoa bete. Itxurakeriak eta itxurakeriak daude, jakina, batzuei itxura egitea benetan interesatuko zaie; alabaina, itxurakeria askoren atzean zinezko izateko nahia mantentzen dela sinistu gura dut. Ipar Euskal Herriari buruz berba egitean usu aipatzen da ikurrinaz eta lauburuez josita egon ohi direla bertako kaleak, zer esanik ez euskal kantuak abesten hasten direnean. Gero, ordea, euskara gutxi entzuten da inguruotan, nahiz eta batzuek gaitasuna eduki.

Ipar Euskal Herriko jendeak ere izateko nahia adierazten dute, euskalduntasunaren nolabaiteko aldarria egiten dute. Euskaraz berba egin, egin... gutxi, halere. Berehalakoan antzematen ez diren hainbat aldagai daude halako kontraesana arrazoitzeko, ulertzen errazak ez direnak. Ezen, maiz jendeak izateko nahi biziena agertu ohi du, justu izateko nahi hori ukatzen dion ingururik latzenean bizi denean. Euskaraz bizi izateko nahiaren barrunbe konplexuei erantsi behar zaie lehentxeago aitaturakoa, norbanakoaren lepoan betebehar oro zamatzearen azkenaldiko ohitura. Halaber, baita ahobizi profilak euskaraz bizi ahal izateko eguneroko bizimoduan dituen zangotraben gama zabala ere: jendearen erantzun txarrak, beti gatazkaren bila dabilenaren estigma eta abar.



Ahobiziek jarrera irmoa eta aktibazioa adierazi gura duten arren, ez daude ahobizi ez diren beste euskal hiztunen (hiztun osoen, hiztun hartzaileen) antzera konplexuetatik erabat libre (hau ere bada aipatutako izateko nahiaren konplexutasunaren adierazgarri).

Esan bezala maiz gertatzen da, hortaz, gauza bat esan eta egiten denaren arteko aldea handia izatea. Normala da hein handi batean, beste asmo eta helburu batzuekin ere gertatzen da halakorik: erretzeari utziko diola pentsatu bere baitan, baina sekula utzi ez; gehiago birziklatuko duela esan, baina hondakinak betiko lez sailkatu barik zakarrontzira... Euskararekin ere antzera: gehiago berba egingo duela esan, bene-benetan hala egin gura duela sinestarazi bere buruari, baina kontu bategatik zein besteagatik ezin proposatutako asmoak bete. Olatz Olaso Emun-eko zuzendariak Hiznet graduondokoa luzatu gaitegian, Leo Festinger gizarte psikologian adituak planteatutako disonantzia kognitiboaren teoriak azaltzen du nahi eta ezinon gora behereak.

Leo Festinger-ek dioen lez, gehienetan objektu batekiko jarrera jakin bat izateak ez du esan gura jokabidea bide beretik joango denik. Hau da, objektuarekiko hautatutako jarreraren disonantzia zantzuren bat igarri orduko hasiko da bat sinismenen baten elementuak eraldatzen. Esate baterako: ahobiziak euskara gehiago erabiltzeko jarrera irmoa du, eguneroko bizimoduan kale giroan, tabernan, lagun artean, edota famili giroan euskaraz bizitzen ahalegindu behar dela diotso bere buruari, saiakera egin behar duela; halere, jarrera horri temati eutsi gura badio ere ikusiko du tabernariak beti erdaraz erantzuten diola, koinatu koinatak, artean euskal hiztunak izanik ere, erdara hutsean aritzen direla beraien artean, kalean ezagunekin eta lagunekin gero eta nekezago zaiola korrontearen aurka aritzea.

Hartara, ondorioztatuko du halako ernegu eta egonezinik sufritzerik ez duela merezi, horrenbeste desio duen euskaraz bizi gura izateak ere ez duela larregizko sakrifizioerik merezi. Hori dela eta, disonantzia egoerei aurre egiteko, lagunekin dituen gatazkak saihesteko, tabernariaren adeitasun falta ekiditeko edota koinatu koinata euskaltzaleak ere erdaraz aritzen direla ikusita; hau da, disonantziak ezerezteko lagunak mantentzea edota inguru hurreko bizimoduaren egonkortasuna euskara baino garrantzitsuagoa dela pentsatuko du.

Hala, euskaraz ez du gurako lukeen bezainbat egingo, norbere portaeran jarrereaz kanpoko faktoreek eragin zuzena daukatelako. Norberarengan eragina duten kanpo faktore horiek presio sozial gisa jokatzeko dute, *arau sozial subjektibo* gisaz ezagutua. Norbanakoaren portaera onargarria den edo ez den erabakitzen da arau sozial subjektiboaren bidez. Hartara, testuinguru batzuetan euskaraz aritzea ez da sozialki onargarria izango; horregatik, erdarara egitera pasako da bat gatazka ekiditeko.

Ekintza arrazoituaren teoria deitzen zaio arau sozial subjektiboaren menara makurtzeari: euskara erabiltzea ondo ikusia ez dagoenetan erdara erabiltzeari, kasu. Arau sozial subjektiboa euskararen erabileraren aldekoa ez bada, arau subjektiboa euskaraz berba egitearen kontrako bada, ahobizirik erradikalenak ere maiz amore eman behar izango du disonantziei gehiago ezin eutsiz, euskararen erabilera ukatzen dituzten egoerei aurre egin ezinik. Izan ere, disonantzia horiek sortzen duten egonezina arintzeko, euskararen gainetik lagun eta inguru hurreko erlazioen egonkortasuna lehenetsiko da.

Argi dago, beraz, egun euskararen erabilera aurrera pausurik eman ezinik aurkitzen bada, neuri handi batean arau sozial subjektiboak babesten ez duelako dela; Barakaldon, batez ere, baina baita gero eta gehiago dirudenez Baliarrainen ere. Barakaldon euskararen normalizazioari edo Baliarrainen euskararen indarberritzeari aurrera egitea galarazten dion kristalezko sabaia du euskarak. Txepetxen aburuz kristalezko sabai hori arrakalatzeko ahobiziak funtsezkoak dira. Fishmanek kristalezko sabaia eguneroko bizimoduaren gainean kokatu du, familian, lagun artean, kalean, taberna zein saltokian. Ahobiziek zer egin dezakete, ordea, kristalezko sabaia eraisteko?

#### **4.2.2. Ahobiziak sistema eragilean**

Maialen Lujanbio bertsolariak sortutako terminoa da sistema eragilearena. AEK-k antolatu ohi duen Korrika-ren aurtengo mezuaren egilea izan da Maialen Lujanbio. Mezua eskutik eskura dabilen zurezko lekuko batean gordetzen da eta behin Korrikak osatzen duen ibilbide guztia egindakoan, bukaerako ekitaldian mezu horren irakurketa burutzen da. Mezu horretan, bada, sistema eragilean klika egiteko beharra aldarrikatu zuen bertsolari hernaniarrak.

Sistema eragileko zutarri nagusiak; instituzioak, herri mugimenduak eta norbanakoak jotzen ditu Lujanbiok. Honela dio mezuaren pasarte batek: “Egin, eragiteko. Eragin, eginarazteko. Norbanakoak egin. Herri-mugimenduek eragin. Erakundeek eginarazi. Egin, eragin, eginarazi” Norbanakotik hasi, herri mugimenduetatik igaro eta erakundeetaraino doan elkar elikatzen den sistema planteatu zuen Maialen Lujanbiok Gasteizen burutu zen Korrikaren bukaera ekitaldian. Zirkuitu bat osatuko lukeen sistema bat: norbanakoak egin, herri mugimenduek eragin eta erakundeek eginarazi.

Aipatu sistema eragilearen funtzionamendu egokiak (egiteak, eragiteak, eginarazteak), arestian aitatutako euskararen erabileraren kontrako arau sozial subjektiboa antzaldatuko luke eta; hartara, euskaraz berba egitea disonantzia ekidinezinen iturri ez litzatekeen arau sozial subjektiboa ernatzen lagunduko luke. Maialenek aipatu sistema eragilea sendotzearekin, beren-beregi, arau sozial subjektiboa euskararen erabilera aldeztara lerratuko litzateke: egin eragin, eginarazi. Hala, ahobiziek eguneroko bizitzan, familian, lagun artean, saltokian euskararen erabilera erraztuko liokeen bestelako erantzunak jasoko lituzke eta euskararen gainean pentsatzen dutenetik egiten dutenera tarte txikiagoa egongo litzateke.

Ahobiziak pentsatzen duenetik egiten duenera tarte txikiagoa egoteko, herri mugimenduek eragiten eta erakundeek eginarazten dutelako izango da, elkar elikatzean datza funtsa eta ez dena norbanakoaren lepo gainean zamatzea. Ahobiziek borondaterik hoberena izan dezakete euskaraz bizi gura izateko. Hautu hori, ordea, unagarria suerta liteke Maialen Lujanbiok aipatu lez herri mugimenduen eta erakundeen konplizitaterik ezean. Ahobiziak, izan ere, sistema eragileak sortuko lukeen arau sozial subjektiboa alde eduki ezean, nekez egingo du aurrera.

Maialen Lujanbiok proposatu sistemak, baina, badu traba nagusi bat edo kontutan hartzeko faktore bat, behintzat. Eta da Jon Sarasuak bere Hiztunpolisa liburuan dioen modura, Sennett-ek kapitalismo berriaren kulturaz dioenaren ildotik, gizarteko eustazpirik sendoenak irabazizko entitateek ezartzen dituztela. Hau da, Richard Sennett-ek azpimarratu bezala, kapitalismo berriaren kultura erreproduzitzen duten irabazizko entitateek eguneroko bizi ohiturak goitik behera zeharkatzen dituztela.

Eguneroko bizimoduan Jon Sarasuak aipatutako irabazizko entitate handiek duten eragina, herri mugimenduek, estatuek edo erakundeek dutena baino handiagoa da. Kapitalak ezarritako bizimodu ohiturek zeharka ala zuzen, era batera edo bestera, Maialen Lujanbiok diseinatutako sistema eragilea erasango du bere dinamiketara erakarritz.

Komunitate oro desegitera daraman aipatutako norbanakoaren gorazarrea ez eze, irabazizko entitateen kultura berriak altzoan dakartza osterantzeko bizimodu ohitura berriak: era guztietako teknologien eragina egunerokoan, serieak, bideo jokoak, sare sozialak; kontsumitzeko modu berriak internet, kasu; aisialdiari ematen zaion gero eta balio handiagoa eta abar...

Urrun joan barik Barakaldora bertara joatea besterik ez dago azken urteotan ematen ari den aldaketa ikusteko. Jon Sarasuak lan honen hasieran aipatutako bertsoetan obrero berba zerabilen Barakaldoko orduko soziologia deskribatzeko. Gaur egun osterantzeko Barakaldo dakusa bertatik igarotzen den orok. Labe garaiak zeuden herrian gaur egun aurkituko ditu: Max Center, Ikea, Megapark, Burger King... Merkataritza gunekak!

Barakaldok hezurmamitzen du euskararen iragan hurreko paradigma nagusia ez eze, azken urteetan Euskal Herrian eman den bilakaera ekonomiko eta soziala ere; industrian oinarritutako ekonomia zerbitzuetara igarotzea. Aldaketok norbanakoaren eta gizartearen baitan ohiturak aldatzea ekarri du.


Hartara, Jon Sarasuak soziologia bifokala aldarrikatzen du euskararen egoeran aurrera egiteko: beste erremediorik ezean aipatu berri den irabazizko entitateek sortzen dituzten bizi ohituren erasanak kontuan edukiko dituen eta dinamika propioak garatzeko posibilitatea lantzen duena. Kontraesana dirudien arren, ahobiziek ere maiz bi faktoreon baitan jardun beharko dute. Alabaina, soziologia bifokala aldarrikatzearena ulertu daiteke bati galga jartzeko edo komeni denari oratzeko, eta besteari bidea libre uzteko; irabazizko entitateen bizimodu ohiturei galga eta lekuan lekuko dinamika propioei bidea erraztuz.

Izan ere, irabazizko entitateek, ezarian-ezarian, sustatu kulturak homogeneousunerantz darama gizabanakoa: elkarren artean gero eta konektatuago gaude, enpresa bereko saltokiak nonahi daudenez munduko hiriek elkarren arteko gero eta antz handiagoa daukate, gero eta gauza antzekoagoak kontsumitzen ditugu, turismo klase gero eta masifikatuagoa, hizkuntza handien gero eta nagusitasun agerikoagoa; zerbaitegatik ikasten dugu hizkuntza gutxituetakook ere ingelesa edo frantsesa bezalako hizkuntza handiak eta ez urdua edo guarania.

Bestalde, lekuan lekuko sistema eragileen sorrerak heterogeneotasunera darama gizabanakoa: aniztasunera, txikitasunera, jasangarritasunera, komunitatera. Hala, lekuan lekuko dinamika propio edo sistema eragile propioak sortu behar dira Barakaldon zein Baliarrainen, bai eta Euskal Herriko beste herri edo hirietan. Hots: herri edo hiri bakoitzeko norbanakoek egin, herri edo hiri bakoitzeko herri mugimenduek eragin eta herri edo hiri bakoitzeko erakundeek eginarazi.

Herri edo hirietako sistema eragile horiek, era berean, Euskal Herriko gainontzeko herri eta hiriekin sarea osatuko lukete elkar harremana sustatuz. Horrela, lurralde administratibo bakoitzaren sistema eragilearen menpe egongo lirateke lekuan lekuko sistema eragile bakoitza ere. Behin eskatzen hasita hiru lurralde administratiboak barnebilduko lituzkeen eta euskararen erabilera aldeztuko lukeen Euskal Herri mailako sistema eragilea eratzea pausu handia litzateke, endemas. Euskal Elkargoa, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak inplikatuko lituzkeena, bai eta lurralde bakoitzeko herri mugimenduak eta ahobiziak elkarlanean jarriko lituzkeena.

Euskal Herri mailako sistema eragilea eratze aldera ederra litzateke toki ezberdinetako ahobiziak batuko lituzkeen jardunaldi edo topaketak antolatzea elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko. Hona Euskal Herri mailako sistema eragilea osatuko lukeen planteamendu orokor bat:



Fishmanek eta Txepetxek eguneroko bizimoduan, familian, lagun artean, kalean zein hartzunen nolakoan jarri dute arreta, alabaina, sistema eragile sendorik ezean zaila da ahobizien lana. Izan ere, maizegi norbanakoaren eragina gehiegi puzten ez ote den, are egungo bizi ohiturek horretara daramanean norbanakoa.

Ez da kasualitatea psikologiaren beharra gero eta gehiago aldarrikatzea egungo bizimoduan, herrialde batzuk, Brasil kasu, filosofia ikasgaia eskoletatik kendu guran dabilzan une berean. Auto laguntzazko liburuak ere gero eta presentego daude egunerokoan. Bada, TELP bezalako egitasmoak ondo daude, zeinetan hizkuntza gutxitu batean bizi gura duen edonor ahalduntzeko balio duen. Ahobiziek TELP-i esker, besteak beste, auto konfiantza eta hizkuntza gutxitu batean bizitzeko argudio eta gaitasun sorta barneratzen dute, esaterako, aipatutako eremu euskaldun zein erdaldunetan ahobiziek hiztun oso eta hiztun hartzaileekin asertibitatez beraien hautua defendatzera eramango duten gatazka kasuetan. Ahobiziak, halere, ez dira heroiak; euskaraz bizi gura duten oinezko xume batzuk baizik ez dira.

Euskaraldiak balio izan du, anartean, eremu euskaldun eta erdaldunetako hizkuntza ohiturak aldatu ez eze, euskaraz bizitzeko hautua egin dutenak zenbatu eta hautu hori egin dutenen iritziak jasotzeko. Eta iritziotan ikusi denez aho zapore ona utzi du orokorrean parte hartzaileengan. Euskaraldiaz haragoko egunetan, ordea, (gaur, adibidez) ahobiziak erneguzko sentipen ugariren testigu dira familian, lagun artean, kalean edo tabernan, Baliarrainen zein Barakaldon, arnaguneetan zein gunen oxigenatuetan.

Haatik, euskararen erabileran oinarritutako komunitatea hedatzeko beharrezkoak dira ahobiziak. Hiznet graduondokoan izandako azken aurrez aurreko klasean honako galdera luzatu zuen Kike Amonarriz soziolinguistak bertaratutakoon artean: zer da euskaldun izatea? Hiru erantzun posible eskaini zizkigun: lehena, euskaraz ongi berba egiteko gai izatea; bigarrena, euskaraz berba egitea; eta, hirugarrena, euskaraz berba egitea eta euskararekiko jarrera baikorra izatea. Txarto akordatzen ez banaiz gehientsuenok euskaraz bizitzea erantzun genuen. Amonarrizek, aldiz, hausnarketara gonbita eginaz hirugarren aukeraren balioa nabarmendu zuen. Hau da, euskaraz berba egitea eta euskararekiko jarrera baikorra izatearen balioaz, hain zuzen.

Unean bertan ez nintzen jabetu, baina gerora memorian harramazka ari nintzela ahobiziak deskribatzeko definizio egokia izan zitekeela pentsatu nuen. Euskaraz bizi gura izatearekin batera, jarrera baikorra edukitzea ezinbestekoa da ezein ahobizirentzat. Aldarteak zeresan handia du. Izan ere, ahobiziak irrikaz daude Barakaldon zein Baliarrainen euskararen erabilera erraztuko lukeen gizarte batean akuilu lana egiteko. Horretarako, baina, idatzi bako arau sozial subjektiboa, testuingurua, alde eduki beharko luke ahobizi orok. Sikiera, Barakaldotik Baliarraina joan etorrian lasai eta gustura ibiltzeko bada ere. Euskaraldiak 11 egun edo 15 egun iraun ordez, 365 egun iraun ditzan.

## Bibliografia

- AIERDI, Xabier: *“Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbibalentziaren presentzia”* (2015)
- ALTUNA, Olatz:
  - *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Euskaldunon dentsitateak zer nolako eragina du euskararen kale erabileran?” (2016)
  - *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa” (2016)
- ALTUNA, Jaime eta HERNANDEZ, Jone Miren: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “%2,7-”Euskara generoaz, mintzo?
- AMONARRIZ, Kike eta MARTINEZ DE LAGOS, Iker: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Bidegurutzetik ateratzeko palankak” (2017).
- ARRUTI, Iñaki: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Ahobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat” (2018)
- ESKISABEL, Idurre: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak” (2018)
- GOIKOETXEA, Garikoitz: “Euskara irabazteko bidean” (2018)
- GORRI, Eneko: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Erdaldunak aktibatze diskurtsoak. Mintzalasai eta BAM! maila diskurtsiboan” (2018)
- ILLARO, Arrate eta MARTINEZ DE LAGOS, Iker: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa” (2018)
- ISASI, Xabier: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Euskara biziberritzea azaltzeko eredu estatistikoa” (2018)
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Euskararen biziberritzea eleaniztasunaren garaiko erronka” (2018)
- MARTINEZ, Zesar, BALDA, Amaia eta LARREA, Imanol: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. “Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa: hainbat gako” (2018)
- SARASUA, Jon: “Hiztunpolisa. “Euskaltasunaren norabideaz apunteak”(2013)
- SENNETT, Richard:
  - “La cultura del nuevo capitalismo” (2006)
  - “Construir y habitar. Etica para la ciudad” (2019)



- ZALBIDE, Mikel: *Bat* soziolinguistika aldizkaria. "Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak" (2016)

## Eranskinak

- GOIKOETXEA, Garikoitz:
  - *Berria* (2019/06/18)  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1913/010/001/2019-06-18/euskararen-erabilera-jakitea-ez-da-nahikoa.htm>:
  - *Berria* (2019/06/30)  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1942/010/001/2019-06-30/euskaraldia-banakoa-eta-kolektiboa.htm> -
- LUJANBIO, Maialen:
  - Korrika-ko mezua (2019/04/14)  
<https://zuzeu.eus/euskara/sistema-eragilean/>
- PAYA, Xabier:
  - *Berria* (2019/01/29)  
[https://www.berria.eus/paperekoa/1898/020/001/2019-01-29/gaitasuna\\_aukera\\_desira.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1898/020/001/2019-01-29/gaitasuna_aukera_desira.htm)
- SARASUA, Jon: Euskaldun berriaren balada  
<https://www.lettras.com/oskorri/1306132/>
- ZALBIDE, Mikel:
  - *Barren* (2019/04/04)  
<https://barren.eus/albisteak/euskara/3950-mikel-zalbide-euskara-batua-hurbilago-dago-orain-dela-500-urteko-euskaratik-hemen-baserrian-ikasten-dena-baino>

## Iturriak

- Euskaraldia Zenbakitan (Gaindegia)
- Euskaraldiaren web orria
- 2016-ko Inkesta Soziolinguistikoa (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### **Hiznet graduondoko gaitegia**

- Juaristi, Patxi (2018/2019): 1.1. Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan
- Zalbide, Mikel eta Erize, Xabier (2018/2019): 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko
- Olaso, Olatz (2018/2019): 1.4. Ikuspegi Soziologikoa eta psikologiarena
- Uranga, Belen (2018/2019): 1.5. Hizkuntza Ekologia
- Martinez, Zesar; Berri-Otxoa, Kontxesi; Altuna, Olatz eta Jausoro, Nekane (2018/2019): 2.1. Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak
- Sangines, Gemma (2018/2019): 6.2. TELP, Taller D`espai Linguistic Personal